

H  
I  
R  
C  
H  
E  
T  
A  
S  
U  
N  
A

T  
R  
I  
L  
I  
N  
G  
U  
I  
S  
M  
O

T  
R  
I  
L  
I  
N  
G  
U  
A  
L  
I  
S  
M

## Hitzaurrea

Gobernatzeak berarekin dakar eguneroko eginkizunen kudeaketa, baina agintaritzea ez da kudeaketa soila, etorkizuna aurreikusi eta berarengan eragiteko gai izan behar du. Hezkuntza arloan beharturik gaude gure belaunaldi berrien etorkizuna tankeratuko duten erabakiak hartzera. Euskal gizarteari aurkeztu diogun hezkuntza marko hirueledunaren saiakuntza-proiektua zuzen-zuzen txertaturik dago Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak abian jarri duen euskal hezkuntzaren modernizazio prozesuaren baitan.

Marko hirueledunak Euskararen Aholku Batzordearen erabakietan dauka bere oinarria, *XXI. Mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak*, izeneko txostenean hain zuzen, non eta esaten den, aurreko politikek zuzendu beharreko akatsak dituztela eta hirugarren hizkuntzaren irakaskuntzari ere ekiteko ordua dela.

Gure gazteak neurri handi batean elebidunak badira, funtsean eskolak azken hogeita hamar urte hauetan egin duen ahalegin ikaragarriari esker izan da. Etorkizunera begira gure hizkuntza biak menperatzeaz gain, hirugarren hizkuntza bat ezagutzea ere nahitaezkoa da, mundurako ateak zabalik izan nahi baditugu eta ezagutzaren eta teknologien muga berriekiko harremana sendotu nahi badugu.

Nazioarteko erreferentzia gara hezkuntza elebidunaren kontuetan. Bestalde, esperientzia eleaniztunak ere martxan jarri izan dira azken urte hauetan. Guztia prest dago, beraz, euskal gizarteak eta inguru europarrak eskatzen diguten norabidean aurrerapauso bat emateko: ingelesa irakaskuntza-tresna gisa, ikasbide gisa, sartzeko gure hezkuntza jardunean.

Diseinatu dugun markoa guztiontzat baliagarri den esparru bateratu bat ezartzen du, ondoren horren gainean ikastetxe bakoitzak bere Hizkuntza Proiektu Hirueleduna eraiki dezan. Ikastetxeak dira, hain zuzen ere, markoa osatzen dutenak, gero modu progresibo, ebaluagarri eta adostuan garatzeko. Eskola-autonomia ikaragarriko baliabide didaktiko gisa agertzen da kasu honetan.

Honekin guztiarekin, batik bat, gure gizartearen gehiengo baten eskakizunari erantzun nahi diogu, euskal hezkuntza, atzera bueltarik gabe, modernitatearen bidetik abiaraziz. Ziurrenik denbora ikuspegi zabal eta luzeagoa behar izango da ireki dugun bide honek ekarriko dizkigun aldaketen sakontasuna bere osotasunean ulertu ahal izateko.

Bukatzeko euskal irakasleriaren ahalegina balioetsi eta eskertu nahi dut. Erabat probatuak ditu hizkuntza gaitasunen irakaskuntzan garatu dituen trebezia eta dedikazioa. Izan ere, gaur egun gizartean ikusten dugun elebitasun mailak azaltzen du argien bere balioaren eta bokazioaren neurria. Marko hirueleduna da euskal gizartearen etorkizunarekin hartu dugun konpromiso historikoaren ikur eta adierazgarri onena.

Isabel Celaá  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua

## AURKIBIDEA

### SARRERA

#### I. SAIKUNTZAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK

#### II. KONTZEPTU-ESPARRUA

1. Esku-hartzearen testuingurua: Euskal Autonomia Erkidegoa.
2. Eleaniztasunaren oinarri teorikoak.
3. CLIL/EHII metodologia.
4. HMHren saiakuntza antolatzeko aldagaiak.
  - 1.- Hezkuntza Marko Hirueledunaren saiakuntzarako baldintzak
  - 2.- Ikastetxeen eta ikasleen hautaketa
  - 3.- Saiakuntzaren helburuak
  - 4.- Arloak, ikasgaiak eta irakasteko hizkuntzakKapitulu honetako erreferentzia bibliografikoak

#### III. JARRAIPEN- ETA AHOLKULARITZA-PLANA

1. Aholkularitza-planaren helburuak.
2. Aholkularitzako esku-hartzeen ezaugarriak
  - a. Klaustroaren hasierako prestakuntza
  - b. Mintegi espezifikoak
    - o Hizkuntza-irakasleentzako mintegia
    - o Curriculum-arloak atzerriko hizkuntzetan irakasten dituzten irakasleentzako mintegia.
3. Aholkularitzan eta dagozkion funtzioetan esku hartzen duten erakundeak eta pertsonak.
4. Egutegia.

#### IV. EBALUAZIO-PLANA

1. Ebaluatuko diren alderdiak eta ebaluazioaren ezaugarriak.
2. Ebaluazio-tresnen ezaugarriak:
  - Errendimendu-probak.
  - Galdetegiak: aldagaiak.
3. Aplikazio-prozesuaren ezaugarriak.

## SARRERA

Euskadiko hezkuntza-sistemaren apustua da euskara eta gaztelaniaren jakintza eta eskolako eta gizarteko erabilera finkatzea, geure hizkuntzak diren aldetik, eta atzerriko hizkuntza bat gehitzea irakaskuntzako eduki jakin batzuk irakasteko. Hau da, (H1 + H2) + H3 sistema hirueledunaren aldeko apustua egiten du. Sistema horrek bermatu behar du testuinguru pertsonaletan, hezkuntzako testuinguruetan eta laneko testuinguruetan ziurtasunez eta eraginkortasunez komunikatzeko behar diren hizkuntza-komunikazioko gaitasunak garatuko direla. Ikasle guztiek lortu behar dute eleaniztasunerako gaitasun hori.

Hezkuntza-sistemaren erantzukizuna da ikasle guztiek hizkuntza-komunikazioko gaitasuna garatzea, eta bermatu behar du guztiek aukera berberak izango dituztela hezkuntza-baliabideak eskuratzeko eta ikasketetan arrakasta izateko, bereziki oinarriko edo nahitaezko etapetan. Horrez gain, gizarteko hizkuntza-aniztasuna, aniztasun soziala eta kultura-aniztasuna aitortu eta erabili behar ditu. Horrek esan nahi du batzuetan elkarrengandik urruntzen diren interesak eta beharrak bateratu beharko dituela.

Beraz, hezkuntza-politikak era guztietako aniztasuna errespetatu behar du, eta, era berean, proposamenak egin behar ditu ikastetxeen ekintza bideratzeko, hezkuntzako maila eta etapa guztietako ikasleek hizkuntzak ikasteko helburuak bete ditzaten.

Hezkuntza Marko Hirueledunaren (HMH) proposamen honek oinarrian dituen printzipioak proiektuak aurkezteko deialdian jasota daude, eta *Euskararen Aholku Batzordearen XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak. Itun berri baterantz* izeneko txostenak hezkuntza-esparrurako egindako gomendioak jarraitzen dituzte. Gomendioak gogoeta honetan oinarritzen dira: «Zuzendu beharrekoak detektatu eta adostasun zabalez aldatzeari ekin beharko zaio, betiere helburu nagusia garbi izanik: eskolak euskaldundu du, euskalduntzen du eta euskalduntzen jarraitu behar du, gurasoek seme-alaben irakaskuntzarako hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta ikasleek derrigorrezko irakaskuntzaren buruan EAEko bi hizkuntza ofizialetan gaitasun nahikoa lortzeko betebeharra harmonizatuz. Hirugarren hizkuntza baten neurri apalagoko irakaskuntzari ere tokia egin behar zaio bertako bi hizkuntza ofizialen irakaskuntzaren ondoan»

Horrez gain, Euskara 21 txostenean jasotako printzipio hauek bere egiten ditu HMHk:

- Hizkuntzara borondatez eta aske atxikitzearen garrantzia; hizkuntza bat ikastearen onurez konbentzitzea eraginkorragoa da hizkuntza nahitaez ikas dadin ezartzea baino.
- Hizkuntza-politikak diseinatzerakoan, oso garrantzitsua da gauzak pixkanaka-pixkanaka sartzeko eta errealitate soziolinguistiko desberdinetara egokitzeko gaitasuna izatea.

Hezkuntza-sistemak badaki erantzukizun handia duela Euskal Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntzak sustatzeko eta atzerriko hizkuntzetan komunikatzeko gaitasuna garatzeko, hezkuntza berritzeko esparruaren barruan, eta hezkuntza ezagutzaren gizartearekin lotuta sortu diren beharretara eta gero eta irekiagoa den gizartean komunikatzeko eta trukatzeko eskakizunetara egokitzeko esparruaren barruan, Europako gizartean mugitzeko eta komunikatzeko erronka berriei erantzun ahal izateko.

Alde horretatik, Europar Batasuneko Kontseiluak, 2009ko maiatzaren 12an egindako bileran, Bartzelonako 2002ko helburuaren garrantzia azpimarratu zuen; hau da, txikitatik atzerriko

bi hizkuntza ikastearen garrantzia. Ministroek Batzordeari eskatu zioten herritarrek atzerriko bi hizkuntzatan komunikatu ahal izan zitezen lortzeko lanean jarrai zezala, eta hizkuntzen irakaskuntza sustatzen jarrai zezala, bi norabidetan lan eginez:

1. Goiz hasia hizkuntzak ikasten (12 urte bete baino lehen): haurrei atzerriko hizkuntzak txikitatik irakatsiz gero, azkarrago ikasten dute, ama-hizkuntza hobeto jakiten dute, eta beste arlo eta ikasgai batzuetan errendimendu hobea lortzen dute.
2. Hizkuntzak ikasteko tresna gisa eta ikasgai gisa erabiltzea. Europar Batasunak, Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusiaren bidez, gomendatzen du atzerriko hizkuntzak erabil daitezela eskola-testuinguruan ezagutzak lortzeko tresna gisa.

Hizkuntzek garrantzi handia dute gure gizartean, eta legeetan jaso da beharrezkoa dela euskararen gizarte-erabilera nahiz erabilera normalizatua sustatzea. Beraz, gutxienez hiru hizkuntzaz osatuta dagoen hezkuntza-eredua izan behar dugu, aukera emango duena antzeko komunikazio-gaitasuna lortzeko Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan, eta komunikatzeko gaitasun ona lortzeko atzerriko hizkuntza batean. Helburu horiek betetzeko, kontuan izan behar dugu hizkuntza-komunikazioko gaitasunak garatzeko orduan, prozedura- nahiz adierazpen-jakintzak eskuratzearaz gain, hizkuntzen nahiz hizkuntzak erabiltzearen aldeko jarrera positiboak ere garatu behar direla.

EAEan, hizkuntza-ereduen arabera antolatutako hezkuntza-sistema bat dugu abiapuntutzat, eta esperientzia handia bildu dugu hezkuntza elebidunari buruz, hizkuntzan murgiltzeko programei buruz eta etxeko hizkuntzei eusteari buruz; gainera, eskola-populazioaren zati handi bat Bigarren Hezkuntza amaitzean elebiduna izatea lortu dugu. Orain Hezkuntza Marko Hirueleduna jarri nahi dugu, ikasleen hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna nabarmen handitzeko. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jasotako eta bultzatutako gizarte-eskaera bat da; zalantzarik gabe, helmen handiko erronka hori betetzeko, beharrezkoa izango da estrategia desberdinak erabiltzea, eta proiektua berbideratzea, hala dagokionean.

# **I. SAIAKUNTZAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK**

## 1. SAIKUNTZAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua 2010eko martxoaren 3an Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean izan zen, Hezkuntza Marko Hirueleduna aurkezteko, eta saiakuntzaren oinarrizko ezaugarri hauek zehaztu ziren bertan:


1. **Izaera esperimentalak.** Deialdiaren helburua da ereduaren sistema kendu eta, haren ordean, marko bat jartzea, gutxienean komun batzuetan oinarrituta, autonomia handia emango diena ikastetxeei beren hizkuntza-proiektuak egiteko. Horretarako, lehenengo saiakuntza-fase bat egitea proposatzen dugu, eta, horren ondoren, dagokion ebaluazioa egindakoan, behin betiko proposamena egingo dugu.

Saiakuntza-aldi hori beharrezkoa da:

- Irakasteko eta ikasteko hizkuntza gisa euskara, gaztelania eta ingelesa batera erabiltzearen ondorioak behar bezala ebaluatzen.
- Egiaztatzen eta hausnartzen ondoren behin betiko proposamena egiteko.
- Hizkuntza-ereduen sistema aldatzeko eskaerari erantzuteko.

Beste ikuspuntu batetik, saiakuntza-aldiak behin betiko proposamena hobetzeko eta indar politikoaren eta hezkuntza-eragilearen arteko akordioa lantzen joateko balio izateaz gain, irakasleen eta ikasleen hizkuntza-gaitasunak hobetzen dituzten neurriak hartzeko ere balio du, etorkizuneko marko hirueledunean errazago sar daitezkeen.

2. **Borondatezkoa bi aldetatik:** ikastetxeek nahiz familiek borondatez eskatzen dute saiakuntzan parte hartzea.
3. **Malgua eta ikastetxe bakoitzaren errealitatera egokitua.** Gutxienean batzuk errespetatuta, ikastetxe bakoitzak autonomia handia izango du bere hizkuntza-proiektua egiteko. Ez dugu eredu bakarra defendatzen, marko malgu eta hirueleduna baizik, euskara jakitea eta erabiltzea sustatuko duena, elebitasuna finkatuko duena, eta atzerriko hizkuntza jakitea eta erabiltzea piztuko duena.
4. **Elkartze-prozesua.** Ikastetxe guztiak, bakoitza bere errealitate soziolinguistikotik abiatuta, pixkanaka-pixkanaka jomuga berera hurbilduko da: euskara, gaztelania eta gutxienez ere atzerriko hizkuntza bat jakitea eta gizartean eta hezkuntzan erabiltzea izango da, hain zuzen, jomuga. Horrez gain, orain saiakuntza-planeari parte hartzen ez duten ikastetxeak etorkizunean gehitzeko bidea irekiko du. Beraz, proposamen irekia da.
5. Bi hizkuntza ofizialetarako jarritako **hizkuntza-helburuei eusten die**, eta haiek lortzeko giza baliabideak eta baliabide materialak bermatzen ditu.
6. **Zentzuzko adostasuna.** Hizkuntza Marko Hirueledunaren ezarpen orokorra zentzuzko adostasun bat baldin badago bakarrik egingo da.





## II. KONTZEPTU-ESPARRUA


1. Esku-hartzearen testuingurua: Euskal Autonomia Erkidegoa.
2. Eleaniztasunaren oinarri teorikoak.
3. CLIL/EHII metodologia.
4. HMHren saiakuntza antolatzeko aldagaiak.

## 1. Esku-hartzearen testuingurua: Euskal Autonomia Erkidegoa

Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legeak (1982) ezarri zuen nahitaezkoa zela bi hizkuntzak –euskara eta gaztelania– ikastea, eta ezaugarri desberdinak dituzten hezkuntza-programa edo “ereduen” bidez sar zitekeela haietara –familien aukeraketa askearen arabera–. A eredu: gaztelania erabiltzen da irakasteko, eta euskara ikasgai gisa ikasten da. B eredu: murgiltze partzialerako eredu da; gaztelania eta euskara ehuneko berrogeita hamarrean erabiltzen dira irakasteko hizkuntza gisa. D eredu: euskara erabiltzen da irakasteko, eta gaztelania ikasgai gisa ikasten da.

la 25 urte igaro dira ereduak ezarri zirenetik, eta familia gehienek D eta B ereduak aukeratu dituzte, batez ere D eredu; pixkanaka-pixkanaka, etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasle asko gehitu dira. A ereduak presentzia txikiagoa du une hauetan. Euskadiko Eskola Kontseiluak “Hezkuntza Euskadin. 2006-2008 txostena” izeneko txostenean adierazi duenez: “Eskola-plazen eskaerak hizkuntza-ereduen arabera hainbat etapatan izaten duen bilakaera aztertuz, argi ikusten da familiek lehenengo eskolatze-unean egiten duten aukera, aldaketa gutxi izaten baitira. Zehazki, Haur Hezkuntzan, D ereduaren aldeko aukerak guztizkoaren bi heren izan du 2007-08 aldian eta, ostera, A ereduaren, matrikulen %7 izan da”. Grafikoetako datuek adierazten dute zer bilakaera izan duten hizkuntza-ereduek EAEn.

**Distribución del alumnado por modelos, en las diferentes etapas educativas. Curso 2007-08.**  
**Todos los centros**



## Ikastereduaren araberako ikasleen banaketa

### Distribución del alumnado por modelo lingüístico

| KURTSOA / CURSO                                 | 2010/11       |              |               |              |                |              | 2009/10       |              |               |              |                |              |
|-------------------------------------------------|---------------|--------------|---------------|--------------|----------------|--------------|---------------|--------------|---------------|--------------|----------------|--------------|
|                                                 | A             |              | B             |              | D              |              | A             |              | B             |              | D              |              |
| Haur Hezkuntza /<br>Infantil<br>3-5 urte/años   | 3.229         | 5,2%         | 14.758        | 23,7%        | 44.161         | 71,1%        | 3.497         | 5,7%         | 15.004        | 24,4%        | 43.104         | 69,9%        |
| Lehen Hezkuntza /<br>Primaria<br>6-11 urte/años | 9.438         | 8,0%         | 33.019        | 28,1%        | 74.990         | 63,9%        | 9.879         | 8,7%         | 33.358        | 29,3%        | 70.462         | 62,0%        |
| DBH / ESO<br>12-15 urte/años                    | 11.478        | 15,8%        | 20.571        | 28,3%        | 40.610         | 55,9%        | 12.557        | 17,6%        | 20.296        | 28,4%        | 38.667         | 54,1%        |
| Batxeta LH / Bach y<br>FP<br>≥16 urte/años      | 34.535        | 59,4%        | 890           | 1,5%         | 22.704         | 39,1%        | 34.053        | 59,6%        | 998           | 1,7%         | 22.063         | 38,6%        |
| <b>GUZTIRA/TOTAL</b>                            | <b>58.680</b> | <b>18,9%</b> | <b>69.238</b> | <b>22,3%</b> | <b>182.465</b> | <b>58,8%</b> | <b>59.986</b> | <b>19,7%</b> | <b>69.656</b> | <b>22,9%</b> | <b>174.206</b> | <b>57,3%</b> |


Hezkuntza Berezia ez dago barne/ No incluye Educación Especial.

X ereduko ikasleak A ereduan sartu dira/ El alumnado del modelo X se ha incluido en el A.

Iturria: Aurrematricula. / Fuente: Prematricula

Lanketa: Informazio Sistemen zerbitzua/ Servicio de Sistemas de Información, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Salla / Departamento de Educación, Universidades e Investigación

11



Hezkuntza Berezia ez dago barne. / No se incluye la Educación Especial.

X ereduko ikasleak A ereduan sartu dira. / El alumnado del modelo X se ha incluido en el A.

Iturria: Eskola Jarduera / Fuente: Actividad Escolar

Lanketa: Informazio Sistemen Zerbitzua / Elaboración: Servicio de Sistemas de Información

Zalantzarik gabe, euskarak ekintza eta laguntza espezifikoak behar ditu oraindik ere, eta beharrezkoa da ekintzak egitea hezkuntzaren eremuan, ikasleei hizkuntza horretan duten gaitasun-maila hobetzen laguntzeko, kontuan hartuta "XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak. Itun berri baterantz" dokumentuak dioen hau: "...hezkuntza-sistemak muga argiak baititu. Bistan da, beste ahalegin batzuk ere egin behar direla gizartean beste hainbeste arlotan: familian, aisialdian, enpresetan eta abar. Hezkuntzak ez du, eta ezin du, hizkuntza ongi ikastearen arazoa berak bakarrik konpondu, salbuespenak salbuespen".

Azken urteetan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hainbat ekintza eta proiektu egin ditu, eskolaren esparruan hizkuntzak erabil eta irakats daitezzen sustatzeko; bereziki,

euskara gizartean eta eskolan erabil dadin sustatu nahi izan du, NOLEGA programak eta Ulibarri programak bultzatutako ekintzen bidez.

Hizkuntzak ikas daitezen eta zenbait hizkuntzatan komunikatzeko gaitasuna lor dadin sustatzeko, hezkuntza-sistemak ekintzak bultzatu behar ditu, irakasleen artean metodologia komunikatiboak eta aktiboak zabaltzeko, eta metodologia horien barruan hizkuntzak irakasteko eta ikasteko prozesuak era koordinatuan lantzeko, Hizkuntzen Tratamendu Integratuaren proposamenari jarraituz.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, atzerriko hizkuntzako gaitasuna hobetzeko, saiakuntza eleaniztun bat jarri zuen martxan 20 ikastetxetan 1996an. Saiakuntzan parte hartzeko oinarrietan, hiru modalitate proposatzen ziren:

- a) **Ingelesa goiz sartzea, 4 urtetik aurrera** (legeak 8 urtetik aurrera egitera behartzen zuen, hau da, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik aurrera). 120 ikastetxek eskatu zuten modalitate honetan parte hartzea, eta 13 ikastetxeren eskaera onartu zen.
- b) **Lehen hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara bitartean ingelesa irakasteko ordutegia zabaltzea** eta astean bi ordu gehitzea (astean 5 ordu izan arte), eta curriculumeko arloen edukiak ingelesez lantzeko proposamena (baita arlo osoetan ere, adibidez, Gorputz Hezkuntzan, Arte Hezkuntzan, Ingurunearen Ezagueran...). 15 ikastetxek eskatu zuten modalitate honetan parte hartzea, eta 3 ikastetxeren eskaera onartu zen.
- c) **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ingelesa irakasteko ordutegia zabaltzea** (curriculum-arloetako edukiak ingelesez lantzeko). 15 ikastetxek eskatu zuten modalitate honetan parte hartzea, eta 4 ikastetxeren eskaera onartu zen.

Gero, aurreko saiakuntzetatik abiatuta, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzaren bidez, 2000-2003 hirurtekorako Hizkuntza Prozesuetarako Programa ezarri zuen. Programa funtsezko hiru ideia hauetan oinarritzen zen:

- Hizkuntzak jakingaiak dira.
- Hizkuntzak funtsezko tresnak dira gizarte-harremanetarako.
- Hizkuntzak behar-beharrezko tresnak dira ikasteko.

Hizkuntza Prozesuetarako Programaren barruan beste programa hauek zeuden: euskararen erabilera normalizatzea, eleaniztasunarena, hizkuntzen tratamendu integratuarena eta hizkuntza-proiektuarena. Hizkuntza normalizatzeo programak nahiz eleaniztasunaren programak aholkulariak zituzten Berritzeguneetan, ikastetxeei ekimen horiek garatzen laguntzeko.


Eleaniztasun-programaren helburua zen ikasleen komunikazio-gaitasuna handitzea atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan, eta horretarako komunikazio-ikuspegi bat erabiltzen zuen, hizkuntzak haiek erabiliz eta haien erabilerari buruz hausnartuz irakatsi behar direla zioena, eta parte hartzen zuten ikasleen elebitasunetik abiatuta.

Eleaniztasun-programak ekimen hauek egin zituen:

- Material didaktikoa sortzea, atzerriko hizkuntza (ingelesa) edukien bidez lantzeko.

- Ikastetxeetako irakasleei prestakuntza teorikoa eta praktikoa ematea ingelesean.
- Ikastetxe bakoitzeko eguneroko lanean sortzen ziren alderdietarako aholkuak eta laguntza ematea.
- Ingelesa irakasteko eta ikasteko prozesua aztertzea eta hausnartzea, hobetzeko proposamenak egiteko.

M. Met egileak aurkeztutako eredu-progresioak (1998) eskola-testuinguruaren barruan hizkuntza eta edukia irakasteko eta ikasteko dauden proposamen ugariak argitzen laguntzen du, eta EAEko egoerak koka daitezke bertan. Taula honetan, egileak eskuinean jarri ditu hizkuntzak jakintza-arlo gisa irakastea proposatzen duten ereduak. Taularen beste muturrean, hizkuntzak beste curriculum-arlo batzuetako edukiak ikasteko tresna gisa erabiltzen dituzten programak daude. Tarteko eremuak hizkuntza-tratamendua zenbait mailatan ematen duten programei dagozkienak dira.



Gaur egun EAEko hezkuntza-sisteman dauden B eta D ereduak murgiltze osoko edo murgiltze partzialeko programen barruan egongo lirateke (A); A ereduak, berriz, bai eta atzerriko hizkuntza hizkuntza-arlo gisa irakastea astean hiru orduz ere, beste muturreko programen barruan egongo lirateke (D).

Hizkuntza-ikasketak nahiz hizkuntzakoak ez diren ikasketak uztartzen dituzten irakaskuntza eleanitzaren proposamenak B eta C proposamenen barruan egongo lirateke. Taulako C ereduak, Lehen Hezkuntzarako INEBI (Ingelesa Edukien Bidez) eta Bigarren Hezkuntzarako BHINEBI (Bigarren Hezkuntzan Ingelesa Edukien Bidez) proposamenak sartuko lirateke. Eleanitzasun-programaren barruan sortutako materialak jaso, eta berriak egin eta aplikatzen dituzte.

Bestalde, taulako B ereduak, saiakuntza eleanitza sartuko litzateke, 2003tik aurrera Bigarren Hezkuntzako 20 ikastetxetan egin zena, curriculum-arloak atzerriko hizkuntzan (nagusiki ingelesez) irakastea proposatzen baitzuen. ISEIk ebaluatu egin zuen saiakuntza hura, eta ebaluazioa bere web-orrian argitaratu zuen izenburu honekin: *"Ikasle hirueledunak bigarren hezkuntzan: egoera berri bat"*.

Aipatutako txostenean honako ondorio nagusi hauek jaso ziren:

- Irakaskuntza eleanitzak irakasteko erabiltzen den hizkuntza barneratzeko erritmoa areagotzen du, eta komunikazio-gaitasuna garatzen laguntzen du. Handik bi urtera, saiakuntzan parte hartu zuten taldeek kontrol-taldeek baino emaitza hobeak lortu zituzten proba guztietan. Dena den, baliteke emaitzetan eragina izan zuten beste aldagai batzuk egotea: ikasleak aldeztatik hautatu izana, atzerriko hizkuntza ikasten goiz hasi izana, edo hizkuntza horretan hobetzeko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu izana.
- Mintegi didaktikoen iritziak, eta badute nahikoa informazio iritzi hori osatzeko, ikasleek ingelesez ikasitako arloen edukiak antzera barneratzen dituzte eta, zenbaitetan, esperientzian parte hartzen ez duten maila bereko taldeek baino hobeto. Beraz, irakaskuntza eleanitzak ez dakar inolako trabarik ingelesez irakasten diren edukiak ikasteko.
- Irakasleen iritziak, saiakuntzak ez du arazorik sortzen ikasleek beste hizkuntza batzuetako gaitasunak garatzeko.

## 2. Eleaniztasunaren oinarri teorikoak.

Europako Kontseiluaren arabera, eleaniztasunerako eta kulturantzatasunerako gaitasunak trebetasun hau eman behar du: *"hizkuntzak komunikatzeko eta kulturen arteko ekintzetan parte hartzeko erabiltzeko; ekintza horietan pertsona gizarte-eragile gisa aritzen da, eta maila desberdinetako gaitasuna du zenbait hizkuntzatan, bai eta hainbat kulturaren esperientzia ere"*. (CEFR, 2001). Hezkuntza eleaniztasunaren helburua da hizkuntza-trebetasunak eta -errepertorioak eskuratzea zenbait hizkuntzatan. Eleaniztasuna bizitza osoan zehar finkatzen da, eta pertsonak beste hizkuntza batzuk gehitzen dituzte beren behar eta helburuen arabera.

Eleaniztasuna eta hizkuntza-aniztasuna besteen hizkuntzak onartzearen baitan eta hizkuntza eta kultura horiek pizten duten jakin-minaren baitan daude. Oinarrizko jarrera horrek eremu urriko hizkuntzek bizirik jarraitu ahal izatea eta beste kultura eta pentsaera batzuetara irekitzea bermatzen du. Hezkuntza-politika egoki batek hizkuntza ofiziala edo ofizialak irakats daitezkeen bultzatu behar du, bai eta atzerriko hizkuntzak irakats daitezkeen ere, eta ofizialak ez diren ama-hizkuntzak irakastearen alde egin behar du.

Pertsona guztiek dute eleaniztasun izateko gaitasuna. Hezkuntza-sistemen betebeharrerako bat da familiei eta ikasleei ikusaraztea zer gaitasun izan dezaketen hizkuntzak erabiltzen ikasteko, eta horretarako aukera eraginkorrak antolatzea. Europako Kontseiluaren *"Hezkuntzan hizkuntza-politikak egiteko gida"*k (Guía para formular políticas lingüísticas en educación) honako uste hauek jasotzen ditu:

- **Hiztun guztiak izan daitezke eleaniztun**, beste hizkuntza edo hizkuntza-barietate batzuk bereganatzeko gaitasuna dute garapen-maila desberdinetan.
- **Eleaniztasunerako gaitasunak ez du ezinbestean esan nahi antzeko gaitasuna lortuko denik** hizkuntza guztietan. Hiztun elebidun, hirueledun edo eleaniztun orekatuak ez dira ohikoak; ohikoena da hizkuntza-errepertorioaren barruan maila desberdinak egotea. Hezkuntza-sistemek estandar errealistak proposatu behar dituzte, eta alde batera utzi "jatorrizko hiztun ideal" baten gaitasuna lortzeko asmoa. Oinarri sendoak finkatu behar dira, zenbait hizkuntzatan etengabe ikasten jarraituko dela eta aurrerapenak egingo direla bermatzen duten jarrerekin eta motibazioarekin.
- Eleaniztasunerako gaitasunaren barruan **hainbat komunikazio-baliabide sartzen dira, zenbait eremutan erabiltzen direnak**: hezkuntzan, pertsonen arteko harremanetan, komunikabideetan, harreman instituzionaletan, adierazpen artistikoan...
- **Hizkuntza-errepertorioa aldatu egiten da pertsona bakoitzaren komunikazio-beharren arabera**. Hezkuntza-politikak lehentasun komunak finkatu behar ditu.
- Eleaniztasunerako gaitasuna, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren arabera, "ez da zenbait gaitasun gainjartzea edo ondoan jartzea; gaitasun konplexu bat da". Beraz, ikasten diren **hizkuntza guztietara zabalitzen den zeharkako gaitasuna da**.
- Eleaniztasunak **kulturantzatasun-osagai bat gehitzen du**, ikaslea hizkuntza horietan garatu diren kulturekin harremanetan jartzen baitu.

Gainera, saiakuntza-jardueretan honako abantaila hauek estrapolatuko dira, dagoeneko frogatu baitira hezkuntza elebidunean eta murgiltze-saiakuntzetan:

- Denbora gehiago ematen da atzerriko hizkuntzaren eraginpean, eta egiaztatuta dago horrek neurriko input eta input ulergarri gisa duen garrantzia (Krashen, 1981).

- Hizkuntza-komunikazioko gaitasuna oro har hartzen da. Hizkuntza ikasteko tresna gisa erabiltzen bada, hizkuntza ikasgai gisa erabiltzerakoan sartzen ez diren gaitasun-alderdiak garatzen dira. (Cummins, 1999; Canale eta Swain, 1980; Bachman, 1990; Vollmer, 2006).
- Elebitasunak eta eleaniztasunak hiztunaren kontzientzia metalinguistikoa areagotzen dute, eta hizkuntzen funtzionamendua eta erabilera errazago aztertzen laguntzen dute. (Huifesen, 2000; Cenoz eta Genesee, 1998; Cenoz eta Jessner, 2000; Baker, 1993)
- Hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko baldintzak egokiak badira, elebitasunak ahalmen kognitiboa indartzen du. (Vollmer, 2006; Cummins, 2001)
- Azpian dagoen gaitasun komunari esker, errazagoa da era guztietako hizkuntza-errepertorioak gehitzea, eta hiztunak dakizkien hizkuntzen artean transferentziak egitea (Cummins, 1998)
- Ikasteko zereginetik jarraera positiboak eta motibazioa handitzen dira (Baker, 1993; Dörnyei, 2004)
- Ikasteko estrategiak garatzen dira, (Chamot, 1998: Oxford, 1990)

### 3. CLIL/EHII metodologia (Content and Language Integrated Learning / Edukien eta Hizkuntzen Ikaskuntza Integratua)

Hezkuntza Marko Hirueledunaren saiakuntza-proposamenaren helburua da Euskadiko ikasleek hizkuntza-komunikazioko gaitasuna nabarmen hobetzea curriculumeko hizkuntza guztietan, oro har. Horretarako, hizkuntzak curriculum-edukien bidez irakastea sustatzen du, komunikazio-metodologia batean oinarrituta, eta alde batera uzten du hizkuntza jakingai gisa ikastearen kontzeptu tradizional eta gramatikala; izan ere, kontzeptu tradizional horrek ikasteko proposatzen dituen jarduerak askotan testuinguru irreal eta ez oso garrantzitsuetakoak izaten dira.

CLIL (*Content and Language Integrated Learning*) metodologia-ikuspegi bat da, eta curriculum-edukiak eta hizkuntzak era bateratuan irakatsi behar direla hartzen du onarriztat. Irakasteko hizkuntza ikaslearen H1ekin bat ez datorren testuinguru guztietan aplikatzen da ikuspegi hori. Metodologiaren ezaugarri nagusia da edukiaren eta hizkuntzaren ikuspegi duala gehitzen duela, eta bi alderdiak batera lantzen dituela; curriculum-edukiari edo hizkuntzari emango zaio garrantzia, jarritako helburuaren edo proposatutako zereginaren arabera.

Gaur egungo gizarte-aldaketek atzerriko hizkuntzak jakitea eta era eraginkorrean erabiltzea eskatzen dute; hizkuntza horiek ikasteko erarik eraginkorrena zein den hausnartzera bultzatu gaitu horrek. Alde horretatik, ikusi dugu hizkuntzak irakasteko metodologia aldatu beharra dagoela: bilakaera bat egon da, eta nagusiki *formala eta estrukturala* zen irakaskuntzatik ikaskuntzaren helburu nagusizat hizkuntza *erabiltzea* duen irakaskuntzara pasatu gara. Irakaskuntza berri horrek garrantzi handiagoa ematen dio hizkuntza-erabileren komunikazio-*funtzioari*, hizkuntza-unitateen *formari* baino. XXI. mendeko ikasleek hizkuntzak erabiltzeko gai izan behar dute. Gainera, hizkuntzak irakasteko eta ikasteko prozesuak lantzen dituzten zientzietan egon diren aurrerapenek egiaztatu dute eraginkorragoa dela **eginez ikastea** (learn by doing) eta **hizkuntza aldi berean ikastea eta erabiltzea** (learn as you use and use as you learn). Horregatik, honako hau da CLIL ikuspegiaren goiburua: **erabili hizkuntza ikasteko, eta ikasi hizkuntza erabiltzen** (*use language to learn and learn to use language*).



Hainbat ikerketak ondorioztatu dute CLIL ikuspegiak hizkuntza-komunikazioan gaitasun egokia eskuratzeko eta garatzeko balio izateaz gain, hizkuntzak irakastearekin eta ikastearekin lotutako beste alderdi batzuk ere sustatzen dituela. Hona hemen azpimarragarrienak:

- Beste kultura batzuk ezagutzea eta errespetatzea.
- Eleaniztasunarekiko eta hizkuntzak ikastearekiko jarrera positiboa eta interesa piztea.
- Ikaslearentzako garrantzitsuak diren testuinguruetan erabiltzea hizkuntza.
- Trebetasun kognitiboak eta hizkuntza-trebetasunak gehiago garatzea.
- Hainbat estrategia didaktiko erabiltzea hizkuntzak irakasteko eta ikasteko.
- Ikasleak motibazioa eta bere buruan konfiantza izatea hizkuntza nahiz ikasgaia ikasteko.

Beraz, CLIL ikuspegiak metodologia eguneratzeko aukera ematen die bai hizkuntza-irakasleei bai curriculumeko beste arlo batzuetako irakasleei. Izan ere, CLILen, irakaskuntzako profesional guztiak hizkuntza-irakasleak dira; batzuek hizkuntzak irakasten dituzte, eta besteek edukiak, baina guztiek metodologia integratzaile bat aplikatzen dute, eta metodologia horrek bermatzen du hizkuntza-helburuak, curriculum-arloetako edukiak eta trebetasun kognitiboak lotuta eta bat eginda egongo direla irakasteko eta ikasteko prozesuan.

#### 4. HMHren saiakuntza antolatzeko aldagaiak

Dokumentu honen lehenengo atalean adierazi dugunez, HMHren saiakuntza gauzatzeko jarraibideak irekiak eta malguak dira. Ikastetxe bakoitzak hartu eta bere egoeretara egokitu ditzake. Proposamen zehatzak antolatzeko, ikastetxeek beren autonomia eta ekiteko gaitasuna erabiltzea nahi du Hezkuntza Administrazioak; hartara, testuingurua ondoen ezagutzen dutenek eta erabakitzeko egoerarik onenean daudenek erantzukizun gehiago eta erabakiak hartzeko aukera gehiago dituzte. Ikastetxe autonomotzat joko dugu, hezkuntza-sistema baten barruan, erabakitzeko eremu garrantzitsuak eta sendoak hartu dituen curriculumari dagokionez, antolamendu-proposamenari dagokionez eta baliabideak banatzeari dagokionez.

Eraginkortasuna handiagoa izango da, ikasleengandik eta haien familiengandik gertuago daudelako, beharrak identifikatzeko aukera hobea dutelako, garrantzitsuenei eta premiazkoenei lehentasuna eman diezaiekutelako, eta aldaketei erantzuteko malgutasun handiagoa dutelako. Ikastetxearen autonomiak, ordainetan, parte-hartzea hobetzea eskatzen du, era autonomoan jarduteko gaitasun handiagoa izateak gizartearen parte-hartze eta kontrol handiagoa eskatzen duelako. Parte-hartzea ez da kudeaketaren aldetik bakarrik ulertu behar, hau da, ez dugu ulertu behar erabakiak hartzen parte hartzen dutenek haiek gauzatzen eta jardueren jarraipena egiten parte hartu behar dutela soilik; hezkuntzaren aldetik ere ulertu behar da, parte-hartzea balio sozial bat baita, eta ikastetxeek balio hori sustatu behar dutelako ezinbestean, herritar arduratsu eta aktiboak prestatu nahi badituzte komunitatean, beren ikasketekiko konpromisoa dutenak.

##### 4.1.- Hezkuntza Marko Hirueledunaren saiakuntzarako baldintzak.

Saiakuntza-proiektuetan parte hartzeko deialdiaren arabera, honako hauek izango dira baldintzak:

- Saiakuntza Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta/edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailan hasiko da. Pixkanaka-pixkanaka ezarriko da, eta hiru ikasturte iraungo ditu.
- Euskara eta gaztelania, atzerriko hizkuntzarekin batera, irakasgaiak eta ikasgaiak izango dira dagozkien hizkuntza-arloetan, bai eta hizkuntzak ez diren gaiak edo arloak irakasteko tresnak ere.
- Lehen Hezkuntzan 5 ordu edo saio egin behar dira gutxienez hizkuntza bakoitzean (euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntza), eta DBHn, berriz, 6 ordu edo saio gutxienez haietako bakoitzean. Horien barruan sartuko dira dagokion hizkuntzaren orduak. Gutxieneko horien barruan, ikastetxeak proposamen bat egingo du, eta proposamen horretan, besteak beste, hiru hizkuntzetako bakoitzean emango den ordu-kopurua zehaztuko da; ordu-kopuru hori aldatu egin daiteke saiakuntzako ikasturte bakoitzean.
- Dauden irakasleen arabera eta ikastetxearen irizpideen arabera zehaztuko da zer ikasgai edo ikasgaietako zer eduki-bloke emango diren hizkuntza bakoitzean, indarrean dagoen curriculumari jarraiki.
- Lehentasuna izango dute behin betiko irakasleek eta/edo ikastetxean esperientzia jarraitua izan dutenek. Irakasle horiek atzerriko hizkuntzan duten gaitasuna ezin da Europako Erreferentzi Marko Bateratuko B2 baino baxuagoa izan.
- Irakasleek saiakuntzak irauten duen hiru ikasturteetan saiakuntzan parte hartzeko konpromisoa hartu behar dute.
- Horrez gain, irakasleek dagokien ikasgaia emateko behar diren baldintzak bete beharko dituzte.
- Ikasgaiak atzerriko hizkuntzan ematen dituzten irakasleek prestakuntza jasoko dute atzerriko hizkuntzaren jakintza sakontzeko, eta curriculum-arloak komunikatzeko eta irakasteko hizkuntza nagusia ez diren beste hizkuntza batzuetan (H2 eta H3) emateko didaktika eta metodologia egokia sakontzeko.
- Irakasleek beren borondatez hartuko dute parte Hezkuntza Marko Hirueledunaren saiakuntzan, aurrez maila-probarik gainditu beharrik gabe.
- Atzerriko hizkuntza (ingeleza, frantsesa edo alemana) aukeratu ahal da baita eman beharreko ikasgaiak.
- Saiakuntzaren garapena ebaluatu ahal izateko, parte hartzen duten ikasleek hasierako ebaluazio bat eta amaierako ebaluazio bat egingo dituzte gutxienez ere, Sailak proposatutako ereduaren arabera. Ebaluazioak ez dira hizkuntza-arloei buruzkoak bakarrik izango; komunikatzeko eta irakasteko hizkuntza nagusia ez diren beste hizkuntza batzuetan (H2 eta H3) ematen diren arloak edo curriculum-edukiak ere ebaluatuko dira.
- Parte hartu nahi duten ikasleen kopurua ikastetxean eskaintzen diren plazena baino handiagoa bada, Ordezkaritza Organo Gorenak ezarri beharko du zer irizpide erabiliko diren saiakuntzan parte hartuko duten ikasleak hautatzeko.

#### 4.2.- Ikastetxeen eta ikasleen hautaketa

HMHren saiakuntza-proiektuetarako proposatutako antolaketan bi hautaketa-iragazki daude. Ikastetxe guztiak izan daitezke hautagai. Lehenik eta behin, Hezkuntza Administrazioak saiakuntzarako ikastetxeak aukeratzeko prozesu bat hasten du, parte hartu nahi duten ikastetxeen artean. Ikastetxeek deialdian ezarritako baldintzak bete behar dituzte, bereziki, arloak eta ikasgaiak ingelesez emateko behar diren tituluak eta hizkuntza-komunikazioko gaitasuna

dituzten irakasleak egotea. Euskarako eta gaztelaniako gaitasuna nahikoa finkatuta dago dagoeneko, eta dagozkien titulu eta gaikuntzen bidez frogatuta dago. Proiektuak zuzendaritza-taldearen bultzada eta Klaustroaren eta Ordezkaritza Organo Gorenaren onarpena izan behar ditu.

Irakasleetako asko elebidunak dira, gaitasuna dute gaztelaniaz nahiz euskaraz aritzeko, eta orain H3n aritzeko hizkuntza-gaitasuna gehitu beharko dute, arlo edo ikasgai bakoitza emateko behar den gaikuntza edukitzeaz gain. Badakigu, interesa eta gogoia alda daitezkeen arren, irakasleen gaitasun-baliabideak ez direla epe laburrean aldatuko, baizik eta epe ertainera eta epe luzera aldatuko direla. HMM gauzatzeko, behar-beharrezkoa da gaitasun espezifikoak dituzten irakasleak egotea. Hezkuntza Administrazioak baliabideak jarriko ditu eta pizgarriak ezarriko ditu proiektuek epe ertainera eta epe luzera iraungo dutela bermatzeko, eta beste ikastetxe batzuetako irakasleek behar adinako gaitasuna izan dezaten saiakuntza epe ertainera orokortzeko, saiakuntza-proiektua ebaluatutakoan ateratako ondorioen arabera.

Irakasleen hizkuntza-gaitasuna da murgiltze-prozesuak gauzatzeko arazo nagusia, euskarazko murgiltze osoan eta murgiltze partzalean ikusi den moduan, H3n hizkuntza-gaitasuna eskuratzea prozesu zaila eta motela delako. Horregatik erabaki dugu hizkuntzaren erdi-mailako ezagutza (B2) duten irakasleak esperientzian hasi ahal izango direla, praktikaren bidez beren komunikazio-gaitasuna eta hizkuntza-gaitasuna hobetzen joateko, beraiek ere hizkuntzan murgilduz. Badaude zenbait estrategia irakasleen ahaleginari laguntzeko eta eragozpenak murrizteko. Euskarazko murgiltzearen esperientzia oso baliagarria izan daiteke.

#### 4.3.- Saiakuntzaren helburuak

Europako Batzordearen hezkuntzari buruzko *"Liburu zuria. Irakastea eta ikastea. Ikaskuntzaren gizarterantz"* (El libro blanco. Enseñanza y aprendizaje. Hacia una sociedad del aprendizaje) dokumentuaren arabera (1995), hizkuntzak irakastearen oinarriko helburua da Europar Batasuneko hiru hizkuntza jakingo direla bermatzea: ama-hizkuntza gehi beste bi hizkuntza (AH + 2), hain zuzen. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, helburua beste hau da: Erkidegoko hizkuntza ofizialak jakitea (euskara eta gaztelania, ikasle gehienek H1 eta H2), eta atzerriko hizkuntza batean jakintza aurreratua izatea, oro har, ingelesean. Lehentasunezko helburu hori betetzeko, dokumentu horretan CLIL lantzen duen ataletik ondoriozta daitekeenez, curriculumeko arlo edo ikasgaiak ikastetxeko hizkuntzen bidez irakatsi behar dira. Hartara, eleaniztasuna bultzatuko da, eta, horrek, era berean, helburu hauek lortzen lagunduko du:

- Hainbat hizkuntza jakin daitezen sustatzea, eta irakasteko hizkuntza gisa erabil daitezen finkatzea, oso eraginkorra baita hizkuntzak ikasteko.
- Proposamen didaktiko integratzaileak eta orokorrak egitea, alde batera uzteko curriculumaren zatiketa, eta ez daitezen loturatik gabe tratatu hizkuntzen ikasgaiak eta curriculumeko gainerako ikasgaiak.
- Ikastetxeen autonomia sustatzea, haien testuinguruaren errealitate linguistiko eta soziokulturalaren interpretaziotik abiatuta, asmo handiko proposamen dinamikoak egin ditzaten, ikasleen ikasketa-beharrak asetzeko.
- Irakasle guztiek ikasleen hizkuntza-komunikazioko gaitasuna garatzen parte hartzea.
- Ikasleek hizkuntzak jakiteko duten motibazioa handitzea, hizkuntza-komunikazioko gaitasuna garatzeko funtsezko faktorea baita.

Hizkuntza Marko Hirueledunak hizkuntzak eta curriculumeko edukiak batera irakastea proposatzen du, kontuan hartuta curriculumeko edukien helburuak berberak direla ikasle guztientzat, irakasteko erabiltzen den hizkuntza edozein dela ere.

Hizkuntza bat "jatorrizko hiztun idealek" bezala jakiteko nahia kasu jakin batzuetan bakarrik da zentzuzkoa, hain zuzen, denbora luzez egon bagara hizkuntzaren eraginpean, eta eragin horren kalitatea ona izan bada. Europako Erreferentzi Marko Bateratuak adierazten duenez, komunikazio-gaitasuna etengabea da, eta inoiz ez da guztiz garatzen, bizitza osoan jarraitzen baitugu hizkuntzak ikasten; eskolatzearen etapan, bermatu behar dugu bere etapako curriculum-edukiak eskuratzeko behar duen bezain beste jakingo duela atzerriko hizkuntza ikasleak, eta jakintza horrek hizkuntza gero eta konplexuagoak diren komunikazio-egoeretan erabiltzen ikasten jarraitzeko balioa diola.

#### 4.4.- Arloak, ikasgaiak eta irakasteko hizkuntzak

Hainbat ikerketak erakutsi dute arlo eta ikasgai guztiak curriculumeko hizkuntza guztietan irakats daitezkeela, diziplina bakoitzaren ezaugarriak eta ikasle-talde bakoitzera egokitzeko aukerak edozein direla ere, betiere bermatzen bada ikasleak nahikoa egon direla xede-hizkuntzaren eraginpean (input ugari), eta hizkuntza era askotako komunikazio-helburuetarako erabili dela (output esanguratsua). Horregatik, saiakuntzan zehar atzerriko hizkuntzan irakatsiko diren arloak edo ikasgaiak hautatzeko, faktore erabakigarria izango da beren jarduera didaktikoetan H3 erabiltzeko nahikoa komunikazio- eta hizkuntza-gaitasun duten irakasleak egotea.

Beste ikuspuntu batetik, eta kontuan hartuta, neurri batean, irakasle guztiak direla hizkuntza-irakasleak, eta hizkuntzak curriculumeko arlo guztietan lantzen direla, ikastetxeek eleaniztasunari etekina ateratzeko neurriak hartu beharko dituzte. Adibidez, irizpideak ezarri beharko dituzte irakasten diren hizkuntzen hausnarketa metalinguistikoa partekatze eta bateratzeko, eta hizkuntzetan eta hizkuntzak ez diren arlo edo ikasgaietan lantzen diren ahozko nahiz idatzizko testu-mota eta testu-generoei buruz hausnartu beharko dute; hau da, bideak jarri beharko dituzte hizkuntzen irakasleek eta arloetako edo ikasgaietako irakasleek batera lan egiteko, hizkuntza-ikasketak errentagarri egiteko, curriculuma hizkuntza-arloetako edukiak behin eta berriz errepikatuz bete gabe.

DBHko 1. mailan eta LHko 4. mailan saiakuntzan parte hartzen duten ikasleen ezaugarriak direla eta, desberdintasunak egongo dira saiakuntza Bigarren Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ezartzerakoan. DBHko 1. mailako ikasleak saiakuntzan hasten direnean hizkuntzen jakintza finkatuta dute nolabait, eta Lehen Hezkuntzako ikasleak, berriz, hasiberriak dira. Bi kasuetan, oso garrantzitsua da hizkuntzen eraginpean ematen duten denbora, bai hizkuntzak erabiltzea eskatzen duten curriculum-edukiak ikasteko zereginetan ematen dutena, bai hizkuntza-arloetan edo -ikasgaietan erabiltzen dutena. Azken hori errentagarri egin behar da, jarduera garrantzitsuak proposatuz.

HMHren ordutegi-proposamena malgua da; baldintza da Lehen Hezkuntzan curriculumeko irakastorduen %20 izatea gutxienez hizkuntza bakoitzean, denbora guztiaren %60. Ikastetxe bakoitzak erabaki dezake nola erabili gainerako %40a, bere hizkuntza- eta gizarte-errealitatearen arabera eta bere hizkuntza-proiektuaren arabera. Gainerako edukiak zer hizkuntzatan landuko diren ikastetxeak erabakiko du, beraz. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan,

hizkuntza bakoitzaren denbora-banaketa berdina da ehunekotan, ikastetxearen hizkuntza-proiektua errespetatuz betiere.

### Kapitulu honetako erreferentzia bibliografikoak

- Alonso, A., Grisaleña, J. eta Campo, A. (2008) Plurilingual Education in Secondary Schools: Analysis of Results. *International CLIL Research Journal*, 1. liburukia (1) 2008.
- Aronin, L. (2005): Theoretical perspectives of trilingual education. *International Journal of the Sociology of Language*, 171, 7-22.
- Baker, C. (1993). *Foundations of bilingual education and bilingualism*. Clevedon: Multilingual Matters. Gaztelaniazko bertsioa (1997) *Fundamentos de educación bilingüe y bilingüismo*, Cátedra, Madrid.
- Canale, M. and Swain, M. 1980: Theoretical bases of communicative approaches to second language teaching and testing. *Applied Linguistics* 1, 1-47.
- Cenoz, J. eta Genesee, F. (Ed.) (1998), *Beyond bilingualism: Multilingualism and multilingual education*. Clevedon, Multilingual Matters.
- Cenoz, J. & Jessner, U, (Eds) (2000) *English in Europe: the Acquisition of a Third Language*. Clevedon, Multilingual Matters.
- Cenoz,, Jasone (2003). *El aprendizaje del inglés desde Educación Infantil: efectos cognitivos, lingüísticos y afectivos*. Eduling 1. zk., Bartzelonako Unibertsitateko ICE.
- Chamot, A. U. and Beard El-Dinary, P. (1999). Children's learning strategies in language immersion classrooms. *The Modern Language Journal*, 83, 3, 319-338.
- Council of Europe (2000). *Common European Framework of Reference for Languages: learning, teaching, assessment*. Council of Europe. Cambridge: Cambridge University Press. Gaztelaniazko bertsioa (2002) *Marco Común Europeo de Referencia: Enseñanza, Aprendizaje, Evaluación*. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa eta Anaya, Madrid.
- Council of Europe (2003): Manual for relating language examinations to the Common European Framework of Reference for Languages. A preliminary pilot version. CoE. Estrasburgo.
- Coyle, D. (2002) Against All Odds: Lessons from Content & Language Integrated Learning in English Secondary Schools, in So, D. & Jones, G. (eds), *Education and Society in Plurilingual Contexts*, Brussels, VUB Press
- Coyle, D. (2000). Meeting the challenge: The 3Cs curriculum, in S. Green (Ed.) *Issues in modern foreign language teaching*. Multilingual Matters: Clevedon.
- Cummins, J. (1999). *Immersion education for the millennium: What we have learned from 30 years of research on second language immersion*. Toronto: OISE.
- Cummins, J. (2001), Instructional conditions for trilingual development. *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism* 4:1, 61-75.
- Dörnyei, Z (2001) *Motivational Strategies in the Language Classroom*. Cambridge: CUP.
- Euskarazko itzulpena (2004) *Motibazio-estrategiak hizkuntza ikasgelan*. HABE, Donostia
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. (2010) *La planificación en los centros escolares*. Eusko Jaurlaritzza
- Euskararen Aholku Batzordea (2009) *XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak. Itun Berritu Bateranz*. Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzza. Gaztelaniazko itzulpena: *Bases para la política lingüística de principios del siglo XXI. Hacia un pacto renovado*. Dpto. de Cultura. G. Vasco.

- Grisaleña, J., Alonso E. eta Campo, A (2009) Enseñanza plurilingüe en centros de educación secundaria: análisis de resultados. *Revista Iberoamericana de Educación*. 49/1. zk. – 2009ko martxoaren 5a.
- Grisaleña, J., Alonso, E. eta Campo, A. (2008) Alumnado trilingüe en educación secundaria. La enseñanza del inglés como lengua extranjera basada en contenidos. *Revista Electrónica d'Investigació i Innovació Educativa i Socioeducativa*, 1. liburukia, 0. zk., 2008.
- Hufeisen, B. & Fouser, R. (Eds.) (2005), *Introductory Readings in L3*. Tübingen, Stauffenburg.
- ISEI-IVEI (2007). *Ikasle hirueledunak bigarren hezkuntzan: egoera berri bat*. Txosten exekutiboa.
- ISEI-IVEI (2007). *La experiencia plurilingüe en los centros públicos de Enseñanza Secundaria de la CAV. Estudio de casos*. (Argitaratu gabeko txostena).
- Krashen, S. D. (1985). *The Input Hypothesis: Issues and Implications*. New York: Longman.
- Lasagabaster, D. (2003) *Trilingüismo en la enseñanza. Actitudes hacia la lengua mayoritaria, la lengua minoritaria y la lengua extranjera*. Lleida, Milenio Educación, 2003.
- Marsh, D (Ed) (2002) *CLIL/EMILE- The European Dimension: Actions, Trends and Foresight Potential* Public Services Contract DG EAC: European Commission.
- Met, M. (1991). Learning Language through Content; Learning Content through Language. *Foreign Language Annals*, 24:4, 281-95. or.
- Muñoz, Carmen (2001). *Factores escolares e individuales en el aprendizaje formal de un idioma extranjero* in Pastor, Susana eta Salazar, Ventura (ed.) *Tendencias y líneas de investigación en adquisición de segundas lenguas*. Estudios de Lingüística. 1. eranskina. Alacant: Alacanteko Unibertsitatea.
- Oxford, R. (1990). *Language learning strategies. What every teacher should know*. Boston: Heinle & Heinle.
- Ruiz Bikandi, Uri (2000). *Didáctica de la segunda lengua en Educación Infantil y Primaria*, Síntesis, Madril, (editorea eta egilekidea).
- The European Commission. *The Action Plan on promoting Language Learning and Linguistic Diversity: 2004-2006*
- Vollmer, H. J. (2006). Subject-Specific competence and language use of CLIL learners: Grade 10 geography in Germany. In: Nikula, Tarja & Dalton Christiane (eds.), *English as the medium of instruction in European schools: analyzing classroom discourse*. Vienna: University of Vienna.
- Wolff, D. (2006). Content and language integrated learning, in K. Knapp and B. Seidelhofer (Eds) *Handbook of applied linguistics*. Springer: Berlin.

### **III. SAIAKUNTZA- PROIEKTUAREN JARRAIPEN- ETA AHOLKULARITZA-PLANA**

1. AHOLKULARITZA-PLANAREN HELBURUAK.
2. AHOLKULARITZAKO ESKU-HARTZEEN EZAUGARRIAK
  - a. Klaustroaren hasierako prestakuntza
  - b. Mintegi espezifikoak
    - i. Hizkuntza-irakasleentzako mintegia
    - ii. Curriculum-arloak atzerriko hizkuntzetan irakasten dituzten irakasleentzako mintegia.
3. AHOLKULARITZAN ETA DAGOZKION FUNTZIOETAN ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEAK ETA PERTSONAK.
4. EGUTEGIA

## 1. AHOLKULARITZA-PLANAREN HELBURUAK

2010eko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez dei egiten zaie fondo publikoekin ordaindutako unibertsitatez kanpoko ikastetxeei Hezkuntza Marko Hirueledunaren saiakuntza-proiektuak gara ditzaten. Hau dio Aginduak aholkularitzari buruz (5.2 eta 5.3 artikulua):

2. *Ikastetxe aukeratuek erreferentziazko aholkularitza izango dute dagokien Berritzegunean. Aholkulari horrek eta proiektuaren koordinatzaileak proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egingo dute.*
3. *Saiakuntzan parte hartzen duten irakasleek hezkuntza didaktikoa eta atzerriko hizkuntzako hezkuntza uztartuko dituen prestakuntza-plan berezia izango dute.*

Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari dagokio, Berritzegune Nagusiaren bidez, prozesu horretarako aholkularitza-eredu bat proposatzea, saiakuntzan parte hartzen duten ikastetxe guztien interes eta beharretara egokitzeko bezain malgua, eta proposamenak arrakasta izateko kontuan hartu behar diren hausnarketa-puntu guztiak barnean hartzeko bezain zabala, Hezkuntza Sailak finkatutako premisen arabera.

### a) Aholkularitza-planaren helburuak

Hezkuntza Marko Hirueledunak arrakasta izateko funtsezkoa da irakasleen lana, eta, horregatik, proposatutako planak irakasleen beharrak jaso behar ditu, eta baliabideak nahiz prestakuntza eman behar dizkie jardunbide egokiak gara ditzaten; hausnarketak partekatuzko benetako gune bihurtuko diren lan-talde egonkorak sor daitezen ere sustatu behar du.

Baina Hezkuntza Marko Hirueledunaren saiakuntza ikastetxeko proiektutzat hartu dugunez, proiektuak arrakasta izateko giltza atzerriko hizkuntzan irakasten duten irakasleek, ikastetxeko hizkuntza-irakasle guztiek (beren esku-hartzeak ikuspegi integratzaile batetik birplanteatu beharko dituzte) eta, noski, saiakuntzan zeharka parte hartzen duten gainerako irakasle guztiek dute. Azken horiek, saiakuntzak aurrera egiten duen heinean, gero eta parte-hartze handiagoa izango dute, guztiek lagundu dezaten ikasleen hizkuntza-komunikazioko gaitasuna garatzen.

Beraz, aholkularitza-plan honen helburuek, bai eta planak dakartzan jarduera guztien helburuek ere, irakasle guztiak hartzen dituzte kontuan, eta xede hauek lortu nahi dituzte:

- Irakasleen klustroari oinarrizko prestakuntza komuna ematea irakaskuntza eleanitzaren printzipio, ezaugarri eta onurei buruz.
- Parte hartzen duten estamentu guztiei Hezkuntza Marko Hirueleduna ezartzeak ikastetxean izango duen eraginari buruz hausnarraraztea.
- Saiakuntza-aldi osoan zehar geletan HMH aplikatzeaz arduratuko diren irakasleei laguntzea, prestakuntza emanez eta dituzten zalantzak eta zailtasunak konpontzen lagunduz.
- Irakasleen artean lankidetzarako esparru bat sortzea, batera egin dezaten aurrera Hezkuntza Marko Hirueledunaren ezarpenean.

## 2. AHOLKULARITZA-PLANAREN EZAUGARRIAK



Proiektu honetan parte hartzen duten ikastetxeek proposamen oso desberdinak zehaztu dituzte, baina ikastetxeak beraiek ere oso desberdinak dira: titulartasun publikokoak nahiz pribatukoak daude, hezkuntzako etapa desberdinetan esku hartzen dute, hizkuntzen didaktika berritzeko jardueretan ibilbide desberdinak dituzte, era askotako gizarte- eta hizkuntza-testuingurutakoak dira eta saiakuntzan erabiliko dituzten baliabide teknikoak eta giza baliabideak ere desberdinak dira.

Heterogeneotasun aberasgarri eta konplexu horren barruan ere hainbat eratako beharrak daude norberaren eta taldearen prestakuntzari dagokionez, eta, horregatik, aholkularitza-plan honen lehenengo ezaugarria malgutasuna da, hau da, ikastetxe bakoitzean aurkitutako beharretara egokitzeko gaitasuna.

Beraz, aurkeztuko dugun aholkularitza-eskaintza ikastetxe bakoitzaren benetako beharretara egokitu daitekeen proposamena da. Bi jarduera ezarri ditugu, helburuagatik nahiz hartzaileengatik bereizita daudenak:

- Klaustro osoarentzako hasierako prestakuntzaren oinarritzko modulua.
- Saiakuntzan parte hartzen duten irakasleentzako mintegi iraunkor espezifikoak:
  1. Ikasgaiak atzerriko hizkuntzan irakasten dituzten irakasleentzako mintegi iraunkorra.
  2. Hizkuntza koofizialak eta atzerriko hizkuntzak irakasten dituzten irakasleentzako mintegi iraunkorra.

#### a) Hasierako prestakuntzaren oinarritzko modulua.

HMH ikastetxearen proiektutzat hartzeak eskatzen du bermatzea klaustroko kide guztiek proiektuaren esanahi eta ondorioei buruzko oinarritzko prestakuntzan parte hartuko dutela eta beren funtzioa onartuko dutela, bai HMHren hasierako saiakuntzan, bai gero izango duen hedapenean.

Horretarako, ikastetxearen antolamendu-aukeretara eta klaustroaren prestakuntza-beharretara egokitu daitekeen prestakuntza-jarduera bat diseinatu da. Hauek dira prestakuntza-jarduera horren helburuak eta edukiak:

Helburuak:

- Hezkuntza Marko Hirueledunaren saiakuntzak ikastetxean izango duen eraginari buruz hausnartzea.
- HMH ezartzeak ekarriko dituen aldaketei buruzko zalantzak argitzea.
- Metodologiak hizkuntzak irakasteko eta ikasteko prozesuetan duen garrantziari buruz hausnartzea.
- Metodologiak curriculum-edukiak zenbait hizkuntzatan irakasteko eta ikasteko prozesuetan duen garrantziari buruz hausnartzea.

Edukiak

- Elebitasuna eta eleaniztasuna.
- Komunikazio-gaitasuna.

- Hizkuntzen eta beste curriculum-arloen arteko loturak.
- Irakaskuntza aktiboaren printzipio metodologikoak.

#### b) Mintegi iraunkor espezifikoak.

Mintegi iraunkorretan oinarritutako prestakuntza-ereduan, irakasleek gune bat dute beren kezkek partekatzeke eta esperientziak trukatzeko; prestakuntza-eredu horrek erakutsi du baliagarria dela praktika aldatzeko eta aberasteko, batez ere irakasleekin era eraginkorrean elkarlanean aritu daitezkeen pertsona adituek kudeatzen badute.

Horregatik, lurralde arteko mintegiak sortzea proposatzen dugu, bat hizkuntzak ez diren ikasgaiak atzerriko hizkuntzetan irakasten dituzten irakasleentzat, eta beste bat hizkuntza guztietako irakasleentzat, zalantzak elkarri adierazi ahal izateko, adostasunetara iristeko, eta prestakuntza berean parte hartzeko. Mintegiak helburu eta eduki hauen arabera antolatuko dira.

#### *1. Ikasgaiak atzerriko hizkuntzan irakasten dituzten irakasleentzako mintegia.*

Helburuak:

- Curriculumeko arloak atzerriko hizkuntzetan irakasteko orientabide didaktikoak partekatzea.
- Gelako jarduna berrikustea eta hobetzea.
- Hizkuntzen eta edukien irakaskuntza integratuan aurrera egitea.

Edukiak:

- EHII
- Komunikazio-proiektuak.
- IKTen erabilera hizkuntzak irakasteko eta ikasteko.
- Material didaktikoak trukatzeko.

#### *2. Hizkuntza koofizialak eta atzerriko hizkuntzak irakasten dituzten irakasleentzako mintegi iraunkorra.*

Helburuak:

- Hizkuntzak irakasteari buruzko orientabideak partekatzea.
- Hezkuntza-jarduna hobetzea.
- Hizkuntzen irakaskuntza integratuan aurrera egitea.

Edukiak:

- Ikasleen hizkuntza- eta komunikazio-trebetasunak garatzeko orientabide didaktikoak.
  - Ahozkoaren ulermena
  - Idatziaren ulermena

- Ahozko produkzioa
- Idatzizko produkzioa
- Interakzioa
- Komunikazio-gaitasuna garatzen duten proiektuak.
- IKTak eta hizkuntzen irakaskuntza.
- Hizkuntzen tratamendu integratua

### 3. AHOLKULARITZAN ETA DAGOZKION FUNTZIOETAN ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEAK ETA PERTSONAK

Hona hemen aholkularitza honetan parte hartuko duten erakundeak eta pertsonak, eta bakoitzari dagozkion zereginak eta erantzukizunak:

- **Berritzegune Nagusia.** Aholkularitza-prozesuaren arduraduna eta koordinatzailea da. Erakunde horren barruan, Hizkuntzen Taldea sortu da, hizkuntza koofizialen eta atzerriko hizkuntzen aholkulariez osatua. Hauek dira taldearen funtzio azpimarragarrienak:
  - HMHren saiakuntzarako aholkularitza-protokolo bat diseinatzea 2010-2011 ikasturterako.
  - Aldi hori amaitzean protokoloa berrikustea, eta saiakuntzaren hurrengo urratsetara egokitzea.
  - Hasierako prestakuntzaren modulua egitea klaustro guztientzat, eta irakaskuntza eleanitzari buruzko oinarritzko printzipioak jasotzea bertan.
  - Ikastetxean irakasten diren hizkuntza guztietako irakasleentzako lurralde arteko mintegia antolatzea eta kudeatzea, hizkuntzen irakaskuntzari buruzko orientabideak partekatzeko, eta hezkuntza-jarduna hobetzeko.
  - Curriculum-edukiak atzerriko hizkuntzan irakatsiko dituzten irakasleentzako lurralde arteko mintegia antolatzea eta kudeatzea, hizkuntzak eta edukiak batera irakasteari buruzko orientabideak partekatzeko, eta hezkuntza-jarduna hobetzeko.
  - Zonaldeetako Berritzeguneetako aholkulariak koordinatzea, guztien aholkularitza koherentea izan dadin.
- **Zonaldeetako Berritzeguneak.** Ikastetxearen erreferentziazko aholkularia egongo da, ebaluazio-prozesuan parte-hartze aktiboa izango duena, baina ez hori bakarrik: zonaldeko Berritzegune bakoitzak aholkulari bat izango du saiakuntzan parte hartzen duen ikastetxean esku hartzeko, eta aholkulari horrek hizkuntzen didaktikan prestakuntza izango du, irakasle izan delako edo horrek lotutako aholkulari-lanak egin dituelako. Komeni da saiakuntzan erabiliko diren atzerriko hizkuntzak jakitea aholkulariek.

Aholkularien funtzioen artean hauek azpimarra daitezke:

- Ikastetxeekin harremanetan jartzea eta harremanetan egotea, ikastetxeek dituzten aholkularitza-beharrak jasotzea eta Berritzegune Nagusiari jakinaraztea.
- Aholkularitza-proposamena ikastetxearen beharretara egokitzea.
- Hasierako prestakuntzaren moduluko oinarritzko prestakuntza ematea klaustroari, hala eskatzen badu ikastetxeak.

- Ikastetxe bakoitzaren jarraipen espezifikoa egitea, egokien deritzon moduan: zonaldekako koordinazio-mintegien bidez edo zonaldeen arteko koordinazio-mintegien bidez izan daiteke, edota ikastetxean bertan esku hartuz.
- Berritzegune Nagusiak antolatzen dituen koordinazio orokorreko saioetan parte hartzea.
- **Parte hartzen duten ikastetxeak.** Ikastetxe bakoitzak pertsona bat aukeratuko du ikastetxean saiakuntza koordinatzeko. Pertsona horrek, deialdi-aginduan adierazten diren lan espezifikoak izateaz gain, honako funtzio hauek izango ditu aholkularitza-planean:
  - Saiakuntzan zuzenean parte hartzen duten irakasleen artean nahiz klaustroan sortzen diren aholkularitza- eta prestakuntza-beharrak aurkitzea eta jasotzea, eta zonaldeko Berritzeguneko aholkulariari jakinaraztea.
  - Irakasleei Berritzegune Nagusitik eta zonaldeko Berritzegunetik proposatutako prestakuntza-jardueretan parte hartzen laguntzea.

## 4. EGUTEGIA

HMHk izaera esperimentalak duenez, ezarritako lan-egutegiak 2010-2011 ikasturteari bakarrik egiten dio erreferentzia. Egutegi horretan, Berritzegune Nagusitik kudeatutako ekintzak bakarrik daude jasota, eta saiakuntzan parte hartzen duten zonaldeetako Berritzeguneek sustatutako ekintzak gehituz joango gara. Hona hemen aipatutako ekintzak:

- Hasierako prestakuntzaren modulua. Ikasturtearen lehenengo hiruhilekoan egitea komeni da, baina ikastetxe bakoitzaren esku dago, erreferentziako aholkulariarekin adostuta, ikasturteko beste une batean jartzea.
- Mintegi iraunkor espezifikoak. Mintegi bakoitzean gutxienez ere bost saio egitea proposatzen dugu, ikasturtean zehar banatuta.
- Berritzegune Nagusiaren eta zonaldeetako Berritzeguneen arteko koordinazioa. Urtean hiru bilera egingo dira, honela banatuta:
  - 2010eko iraila/urria: Berritzegune Nagusiaren aholkularitza- eta prestakuntza-proposamena jakinaraztea, parte hartzen duten ikastetxeen beharrei eta interesei buruzko lehen informazioa jasotzea, eta aholkularien lehenengo esku-hartzeak antolatzea.
  - 2010eko abendua / 2011ko urtarrila: saiakuntzaren garapena aztertzea, bateratzea egindako materialak, egindako proposamenak eta ikastetxeen eskaerak, eta zonaldeko esku-hartzeen koordinazioa indartzea.
  - 2011ko maiatza: aholkularitza-prozesua ebaluatzea, eta hobetzeko proposamenak jasotzea, 2011-2012 ikasturtean indartu ahal izateko.

# **IV. HEZKUNTZA MARKO HIRUELEDUNA EBALUATZEKO PLANA**

1. Ebaluazioaren helburuak eta ezaugarriak
2. Ebaluazio-tresnen ezaugarriak:
  - a) Errendimendu-probak.
  - b) Galdetegiak: aldagaiak.
3. Aplikazio-prozesuaren ezaugarriak.

## 1. EBALUAZIOAREN HELBURUAK ETA EZAUGARRIAK

2010eko maiatzen 18ko Aginduaren bidez dei egiten zaie fondo publikoekin ordaindutako unibertsitatez kanpoko ikastetxeei, Hezkuntza Marko Hirueledunaren saiakuntza-proiektuak gara ditzaten. Honako hau dio Aginduak ebaluazioari buruz:

- *Saiakuntzaren garapena ebaluatze aldera, egitasmoan parte hartuko duten ikasleek hasierako nahiz amaierako ebaluazioak egingo dituzte –Sailak proposatutako ereduari jarraikiz–. Horrenbestez, ebaluatuko dira hizkuntza-alorrek eta komunikazio- edo irakaste-hizkuntza ez den beste batean eman diren curriculum-edukiak edo -alorrek (2H eta 3H), 2.j artikulua.*
- *Proiektuaren emaitzak ebaluatzeko eta, hala badagokio, Hizkuntza Marko Hirueledunaren orokortze-aukerak aztertzeko, azken ebaluazioa egingo dute proiektuan parte hartu duten ikasleek, ISEIk beren beregi ezarritako ereduari jarraikiz, ikasleen hizkuntza-arloetako konpetentziak Europako Erreferentzi Marko bateratuan dauden maila eta azpimailetan kokatzea ahalbideratuko duena. Ebaluazio horiez gain, zenbait galdetegi bete beharko dituzte saiakuntza honetan parte hartu duten gurasoek, irakasleek eta ikastetxeek. (18. artikulua).*

Beraz, ISElri dagokio saiakuntza-prozesu hori ebaluatzeko eredia finkatzea, bai eta gutxienez hasierako eta amaierako ebaluazioak egitea ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak finkatutako premisen arabera.

### a) Ebaluazioaren helburuak

Adierazitako xedeari erantzuteko, ISEIk luzetarako ebaluazio bat aplikatzea proposatuko du eta datuak jasoko ditu, honako alderdi hauek betetzen ote diren jakiteko:

1. Saiakuntzako taldeek eta kontrol-taldeek H1 eta H2 hizkuntzetan antzeko errendimendua lortzen ote duten.
2. H3n lortutako errendimendua askoz handiagoa ote den saiakuntzako taldeetan kontrol-taldeetan baino.
3. Hizkuntzakoak ez diren gaitasunetan (kasu honetan, matematika-gaitasunean eta gaitasun zientifikoan) lortzen den errendimendua antzekoa ote den saiakuntzako taldeetan eta kontrol-taldeetan.
4. Testuinguruarekin, ikastetxearekin eta norberarekin lotutako zer faktorek eragiten duten ikasleek saiakuntza honetan duten errendimenduan.
5. Europako Erreferentzia Marko Bateratuko zer maila edo azpimaila lortzen duten ikasleek Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailan, saiakuntza amaitzean.

### b) Ebaluazioaren ezaugarriak

Saiakuntza-prozesu honetan parte hartzen duten ikastetxeek, deialdiak jarritako mugen barruan zegoen hizkuntza-proiektu bat aurkeztu behar izan badute ere, oso proposamen desberdinak zehaztu dituzte. Hainbat baldintza direla eta, saiakuntza-proposamenak desberdinak dira: besteak beste, ikastetxe bakoitzaren ezaugarriak eta hizkuntza-ibilbidea direla eta, eta ikastetxean nahiz saiakuntzan eskuragarri dauden giza baliabideak eta baliabide teknikoak direla eta.

Hizkuntza-garapeneko proiektuen artean egon den aniztasun horren ondorioz, bi desberdintasun nabarmen agertu dira: alde batetik, hizkuntzak ez diren arloak irakasteko hiru hizkuntzak erabiltzen badira ere, hizkuntza bakoitzaren ordu-kopurua oso ezberdina da proposamen batetik bestera; bestetik, ez dago bateratuta arlo bakoitza zer hizkuntzatan irakatsiko den, ezta enborreko arloetan edo curriculumean presentzia handiena duten arloetan ere.

Aurreko guztia kontuan hartuta, saiakuntza hau ebaluatzeko prozesuaren ezaugarriak zehazteko, beharrezkoa da zenbait galderari erantzutea: alde batetik, horrenbesteko egoera-aniztasuna duen saiakuntza bat neurtzeko eredurik egokiena eta indartsuena zein den identifikatu behar da; bestetik, errendimendu-probetan erreferentzia gisa zer gaitasun-maila erabiliko diren hausnartu behar da; eta, azkenik, zehaztu behar da zer maiztasunekin neurtuko diren hizkuntza-alorretako eta hizkuntzakoak ez diren alorretako aurrerapenak.

### ***Ebaluazio-eredua***

Hizkuntza-proiektuen artean dagoen aniztasun horren ondorioz, oso konplexua da curriculum-izaerako ebaluazioa egitea eta, gainera, ebaluazio hori hizkuntzak ez diren arloetako bakoitzean erabiltzen den irakasteko hizkuntzarekin lotuta egotea; izan ere, kasu askotan, ikastetxeen eta ikasleen kopurua ez litzateke nahikoa izango emaitza fidagarri eta alderagarriak bermatzeko. Gainera, curriculum-izaerako ebaluazioa egiteko, alde aurreko akordioa egin beharko litzateke saiakuntza egin behar duten ikastetxeen curriculum-proiektuei eta kontrol-taldeei dagokienez.

Saiakuntza-prozesua ebaluatzeko estrategiarik egokiena **gaitasunez gaitasun ebaluatzeko eredua** jarraitzea da, ikastetxe bakoitzeko berariazko curriculum-garapenekin horren lotuta ez dagoen eredu bat delako, eta gainera koherentea delako ebaluazio-diagnostikoan eta nazioarteko ebaluazio batzuetan (ELGaren PISA edota IEAren PIRLS) ezarritako eta garatutako ereduarekin.

### ***Errendimendu-mailak***

Hezkuntza-politiken funtsezko elementu bat da errendimendu-itxaropenak mugatzea eta ikasketa-helburuak zehaztea. Gaitasunen curriculum-deskribatzaileak edukitzea erabilgarria izan daiteke, baldin eta argiak badira eta erraz ulertzen bada zer ikasketa-itxaropen adierazten duten, eta konparazio egonkorra egiteko balio badigute.

Europako Erreferentzia Marko Bateratuak irakaskuntza planifikatzeko eta ikaskuntza ebaluatzeko balio duten deskribatzaile batzuk proposatzen ditu, hizkuntza-ikasgaietako gaitasun-mailak bateratzeko eta, beraz, baita beste ikasgai batzuk irakasteko erabiltzen diren hizkuntzetako gaitasun-mailak bateratzeko ere.



Aurrekoarekin batera, bigarren erreferentzia-iturria da dagokien etapetako curriculum, hau da, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum. Izan ere, hizkuntza-gaitasunaren garapeneko mailakako elementuak finkatzen dituzte (H1en, H2n, nahiz atzerriko hizkuntzatzat lantzen den hizkuntza gehigarrian), bai eta gaitasuna osatzen duten elementuak ebaluatzeko irizpideak ere: edukiak, trebetasunak, prozedurak eta jarrerak.

Bi erreferentzia horietako edozein, edo bi erreferentziak batera, erabil daitezke saiakuntzan lortu nahi diren errendimendu- edo gaitasun-mailak finkatzeko. Baina horrek bi arazo sorraraziko lituzke: alde batetik, derrigorrezko etapa bakoitzerako alde aurretik erreferentzia-mailak finkatzeko eztabaidan sartuko litzateke berriz ere saiakuntza, eta horrek, iraganean, eztabaida handia eta adostasun gutxi sortu du hezkuntzan; bestetik, alde aurretik errendimendu-mailak finkatzeak gehiegi baldintza ditzake saiakuntza-prozesua bera eta, batez ere, saiakuntza-prozesuaren emaitzak.

Beraz, **ebaluazio batetik bestera dagoen areagotzea neurtzen eta adierazten duen ebaluazioa** egitea erabaki dugu; hau da, saiakuntza-prozesuan izandako areagotzea neurtzea, eta ez maila jakin batera iristeko falta dena. Saiakuntza-prozesuan ez dugu kendu nahi, gehitu baizik. Erabiliko diren proba guztiek lotura-elementuak izango dituzte eta eskala berekoak izango dira, ebaluatutako gaitasun bakoitzeko areagotzea neurtu ahal izateko, saiakuntzak iraungo duen hiru urteetan zehar. Neurketa horretarako, indarrean dagoen curriculum-araudiaren erreferentzietan oinarrituko gara, noski.

Horrelako saiakuntza-prozesu batean egokia izango litzateke azken emaitzak eskala ezagun eta egonkor baten bidez neurtzea, menderatze-maila bakoitzean eskuratutako gaitasun eta ikasketen araberrako eskala bat, hain zuzen. Eskala horri esker, prozesuan zehar nahiz saiakuntzaren amaieran, kanpoko konparazio-elementuak edukiko ditugu, gaitasun bakoitzean lortutako mailak kokatzen eta saiakuntzan adierazitako erabakiak hartzen laguntzeko.

### *Errendimendu-probak*

Adierazi dugun moduan, gaitasunen areagotze hori neurtzeko ezinbestekoa da kalitate nahikoa duten errendimendu-probak erabiltzea, eskala berekoak diren eta beste estandar batzuekin konparatzeko berme nahikoa ematen duten probak, hain zuzen.

ELGAK PISA proben bidez egiten duen erreferentzia da garrantzitsuenetakoa, nazioartean onartuenetakoa eta egonkortasun handiena duenetakoa. Euskal Autonomia Erkidegoak 2003az geroztik parte hartzen du ebaluazio horretan. PISA-erreferentzia hezkuntzako erreferentziarik ezagunenetakoa eta balioetsienetakoa da, zalantzarik gabe, bai eta hezkuntza-sistemak alderatzeko neurketa-tresna bikaina ere.

Beraz, HMM-saiakuntzaren ebaluazioak **PISA eskalan adieraziko ditu azken emaitzak**, eta puntuazio horren arabera neurtuko dira errendimendu-proba guztiak. Hau da, PISAko estandarrek erabiliko dira hizkuntza-komunikazioko gaitasunetako lorpenak neurtzeko (euskaraz eta gaztelaniaz), bai eta matematika-gaitasuna eta gaitasun zientifikoa neurtzeko ere; izan ere, hiru urtean behin PISA azterketak gaitasun horiek ebaluatzen ditu eta neurketako lehenetsuneko ikasgaiak dira edizio bakoitzean.

Saiakuntza-prozesuaren erdian, ACER –Australian Council for Education Research (<http://www.acer.edu.au/>)– batzordeak egindako errendimendu-probak erabiliko dira.

Errendimendu-proba horiek PISAko puntuazioaren arabera mailakatuko dira, saiakuntza-aldiaren amaierako aplikazioaren bidez; horretarako PISAko itemak erabiliko dira. PISA-ACERko itemekin egingo den amaierako aplikazio horretan, kontrol-taldean eta saiakuntzako taldean lagin adierazgarriak parte hartuko du.

Adierazi dugun moduan, PISAK irakurmen-gaitasuna neurtzen du lehen hizkuntzetan, baina ez atzerriko hizkuntzetan; beraz, PISA-azterketa ezin da erreferentziatzat erabili atzerriko hizkuntzako lorpena neurtzeko. Europar Batasunaren 2020rako hezkuntza-helburua atzerriko hizkuntzak ikastearekin lotuta dago eta, berez, 2010/2011 ikasturtean lehendabiziko aldiz aplikatu dira *Europako hizkuntza-adierazlea* eraikitzeko probak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailan; hala eta guztiz ere, oraindik denbora behar du sendotasuna eta jarraipena lortzeko. Beraz, une honetan ez dago PISAren moduko nazioarteko probarik atzerriko hizkuntzako hizkuntza-gaitasuna neurtzeko.

Hala ere, ez dago zalantzarik gaitasun hori ebaluatzen eskarmentu handia dutela esperientzia handiko erakunde entzutetsuek, eta nahikoa nazioarteko berme dituztela errendimendu-proben kalitatea ziurtatzeko. Alde horretatik, saiakuntza-prozesu honetarako berariaz sortutako probak erabiliko dira atzerriko hizkuntzako (ingelesa) hizkuntza-komunikazioko gaitasuna neurtzeko. Era berean, proba horiek neurtzeko eta mailakatzeko, Europako Kontseiluko Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko nazioarteko estandarrak erabiliko dira, eta proben emaitzak aipatutako Markoko mailen eta azpimailen arabera adieraziko dira. Probak sortzeaz arduratuko da University of Cambridge ESOL Examinations, ALTEko (Association of Language Testers in Europe – Europako Hizkuntza Aztertzaileen Elkarte) kide sortzailea, eta ISEI-IVElek proposatutako zehaztapen teknikoetatik abiatuta egingo ditu.

### *Neurketen maiztasuna*

Deialdi-aginduak berak 2.j. artikuluan adierazten duenez, gutxienez hasierako eta amaierako ebaluazio bana egingo dute saiakuntzan parte hartzen duten ikasleek. Bi ebaluazio horiek aukera emango dute aurrez aipatu ditugun gaitasunetan izandako areagotzea neurtzeko, eta azken erabakiak hartzen lagunduko dute.

Dena den, saiakuntza-prozesua luzea denez –hiru ikasturte–, oso zaila da helburu hori lortzeko behar bezain neurtuta dauden errendimendu-probak izatea. Horregatik, zentzuzkoena aldi baterako eredu bat ezartzea da, honako ezaugarri hauekin:

- **Urtero neurketak** egitea, saiakuntzako ikasturte bakoitzaren amaieran, zehatzago ikusi ahal izateko gaitasunetan izandako areagotzea eta kontrol-taldeekin egiten den alderaketa.
- **Ikasle-talde osoa** neurtzea, saiakuntza hasten denetik amaitzen den arte.
- Bigarren deialdian saiakuntzara gehitzen diren ikasleak neurtzea, denbora-prozesu bera eta tresna berak erabiliz.

Honako taula honetan agertzen da ezarritako lan-egutegia:

| Etapa | Ikasturtea | 2010/2011<br>ikasturtea | 2010/2011<br>ikasturtea | 2011/2012<br>ikasturtea | 2012/2013<br>ikasturtea | 2013/2014<br>ikasturtea |
|-------|------------|-------------------------|-------------------------|-------------------------|-------------------------|-------------------------|
|-------|------------|-------------------------|-------------------------|-------------------------|-------------------------|-------------------------|

|                 |    |                         |               |                                     |                        |                        |
|-----------------|----|-------------------------|---------------|-------------------------------------|------------------------|------------------------|
| LEHEN HEZKUNTZA | 4º | Lehen hiruilekoa I. HMH | Ekaina I. HMH | Lehen hiruilekoa eta ekaina II. HMH |                        |                        |
|                 | 5º |                         |               | Maiatza/Ekaina I. HMH               | Maiatza/Ekaina II. HMH |                        |
|                 | 6º |                         |               |                                     | Maiatza/Ekaina I. HMH  | Maiatza/Ekaina II. HMH |
| DBH             | 1º | Lehen hiruilekoa I. HMH | Ekaina I. HMH | Lehen hiruilekoa eta ekaina II. HMH |                        |                        |
|                 | 2º |                         |               | Maiatza/Ekaina I. HMH               | Maiatza/Ekaina II. HMH |                        |
|                 | 3º |                         |               |                                     | Maiatza/Ekaina I. HMH  | Maiatza/Ekaina II. HMH |

I. HMH: lehen deialdia

II. HMH: bigarren deialdia

Beraz, honako hauek dira ebaluazio horren ezaugarriak:

- Ikuspuntu kontzeptualetik, **gaitasunez gaitasun ebaluatu** nahi dugu, saiakuntza-prozesuari buruzko informazio fidagarria eta baliagarria lortzeko behar diren berme tekniko eta psikometrikoein.
- Ebaluazioak **gaitasunaren areagotze mailakatua neurtuko du.**
- Ebaluazioak **prozesuaren amaieran emango ditu emaitzak, ELGaren PISA eskalaren arabera**; eskala hori menderatze-maila bakoitzean eskuratutako gaitasun eta ikasketen arabera eta *Australian Council for Educational Research* (ACER) batzordearen estandarren arabera egina dago.
- Atzerriko hizkuntzako (ingeleza) hizkuntza-komunikazioko gaitasunaren kasuan, emaitzak mailetan eta azpimailetan adieraziko dira, eta horiek Europako Kontseiluko Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuak eta ALTEk (Association of Language Testers in Europe – Europako Hizkuntza Aztertzaileen Elkarte) zehaztutakoak izango dira.
- Saiakuntzan parte hartzen duten ikasle-talde guztiei **zenbait neurketa eta urteroko neurketak** egingo zaizkie, aipatutako Aginduko 2.j) artikulua adierazten dituen hasierako eta amaierako ebaluazioak barne.



## 2. EBALUAZIO-TRESNEN EZAUGARRIAK

Aholkularitza-prozesuan jaso daitekeen informazioaz gain, oinarrizko informazioa honako hauetatik aterako da: saiakuntza-prozesu honetan parte hartzen duten ikasle guztiek bete beharko dituzten errendimendu-probetatik, eta galdetegietatik. Galdetegi horien bidez informazioa eskatuko zaie ikasle guztiei, zuzendaritza-taldeei, irakasleei eta, beharrezkoa balitz, baita ikasleen familiei ere.

### a) Errendimendu-proben ezaugarriak

Saiakuntzaren hasieran nahiz proiektuak iraungo duen hiru ikasturteetako bakoitzaren amaieran egingo dira gaitasunak neurtzeko probak, eta hizkuntza-gaitasunak nahiz hizkuntzakoak ez diren gaitasunak neurtuko dituzte.

- Honako gaitasun hauek ebaluatuko dira bi hizkuntza-etapetan:

| Lehen Hezkuntzako 4. maila                                                                                                                                                                                               | DBHko 1. maila                                                                                                                                                                                                           |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Hizkuntza-gaitasunak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Euskarazko hizkuntza-komunikazioa.</li> <li>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa.</li> <li>Atzerriko hizkuntzazko hizkuntza-komunikazioa.</li> </ul> | <b>Hizkuntza-gaitasunak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Euskarazko hizkuntza-komunikazioa.</li> <li>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa.</li> <li>Atzerriko hizkuntzazko hizkuntza-komunikazioa.</li> </ul> |
| <b>Hizkuntzakoak ez diren gaitasunak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Matematika-gaitasuna.</li> <li>Gaitasun zientifikoa.</li> </ul>                                                                         | <b>Hizkuntzakoak ez diren gaitasunak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Matematika-gaitasuna.</li> <li>Gaitasun zientifikoa.</li> </ul>                                                                         |

- Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna ez ezik, beste eskola-gaitasunak zenbateraino lortzen diren neurtzeko eta mailakatzeko, PISA-ACERen (*Australian Council for Educational Research*) proba gidatuak eta nazioarteko estandarretara egokitutako probak erabiliko dira.
- Ebaluatu nahi dugun gaitasun-mota bakoitzaren egiturara eta berariazko curriculum-ezaugarrietara egokituko dira alderatze-eskemak.
  - Hizkuntza-gaitasunen kasuan, soilik irakurriaren ulermena ebaluatuko da, eta horretarako era askotako forma edo koadernoak eta testuak erabiliko dira. Gainerako hizkuntza-trebetasunak ere ebaluatuko dira prozesuan zehar, prozedura espezifiko bidez.
  - Hizkuntzakoak ez diren gaitasunen kasuan, maila bakoitzerako berariazko probak erabiliko dira, eta guztiek eskala bera izango dute.

- Proba bat egingo da saiakeraren maila bakoitzean eta etapa bakoitzean. Modu horretara, saiakeraren hiru urtetan zehar dauden etapa guztietan, gaitasun bakoitza neurtuko duten probak elkarren artean mailakatuta egongo dira, eta horri esker, ikasleen gaitasunen garapenak izandako aurrerapena hautemango da.

- 
- Honako hau izango da **euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko gaitasuna neurtzeko** probek bi etapetan izango duten egitura:

- ✓ Maila bakoitzeko koaderno bat erabiliko da, bi hizkuntza koofizialetako (euskara eta gaztelania) hizkuntza-gaitasuna neurtzeko.
- ✓ Forma bakoitzak 25-30 item izango ditu.
- ✓ Item guztiak aukera anitzekoak izango dira, eta hainbat mota, zailtasun eta luzeratako testuekin lotuta egongo dira.
- ✓ Proba guztiak elkarrekin alderatuta egongo dira eta, saiakuntza-prozesuaren amaieran, hizkuntza bakoitzeko PISA-proban irakurriaren ulermenean lortutako puntuazioarekin.

- Honako hau izango da **ingelesezko hizkuntza-komunikazioko gaitasuna** neurtzeko probek bi etapetan izango duten egitura:

- ✓ Maila anitzeko probak, ikasleak Europako Marko Bateratuko mailetan eta azpimailetan sailkatzeko. Maila anitzeko probak ez dira berberak izango Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat, kasu bakoitzean Markoko mailak hartuko baitira erreferentziatzat.
- ✓ Proba horiek neurtuko dituzte ikasleen entzundakoaren eta idatziaren ulermena, baita idatzizko adierazpena ere koaderno baten bidez. Ahozko adierazpena ere neurtuko da, baina saiakera-prozesuaren amaieran.
- ✓ Maila anitzeko probak direnez, gaitasun hori saiakeraren lehen eta azken urtean neurtuko da, eta ez beste gaitasunak neurtzen diren modu berean.

- 
- Honako hau izango da **hizkuntzakoak ez diren gaitasunak** neurtzeko probek bi etapetan izango duten egitura:

- ✓ Hizkuntzakoak ez den gaitasun bakoitzeko eta ebaluatutako maila bakoitzeko proba bana egingo da.
- ✓ Hizkuntzakoak ez den gaitasun bakoitzeko koaderno bakoitzak aukera anitzeko 30 bat item izango ditu.
- ✓ Koadernoak matematika- eta zientzia-gaiei buruzko aukera anitzeko itemez osatuta daude eta dagokien adin-taldeari egokituta daude.
- ✓ Proba guztiak elkarrekin alderatuta egongo dira eta, saiakuntza-prozesuaren amaieran, gaitasun bakoitzeko PISA-probarekin.

**b) Galdetegiak: aldagaiak**

Izaera kualitatiboko tresnei dagokienez, saiakuntzako hainbat unetan aukera anitzeko galdetegiak bete beharko dituzte saiakuntzan parte hartzen duten ikastetxeetako zuzendariak, ikasleak, irakasleak eta familiarek. Galdetegi horien helburua da testuinguruaren eta norberaren alderdiei buruzko informazio gehigarria jasotzea, saiakuntzaren emaitzetan eragina izan dezaketelako, eta emaitzak azaltzen lagun dezaketelako.

Beraz, besteak beste, honako alderdi hauei buruzko datuak jaso nahi ditugu:

1. Ikastetxearen testuinguru soziolinguistikoa.
  - a. Ikastetxearen ingurunean nagusi den/diren hizkuntza/k.
2. Ikastetxearen hizkuntza-ezaugarriak.
  - a. Ikasteko hizkuntza-eredua/k.
  - b. Ikastetxearen hizkuntza-proiektua eta -helburuak.
  - c. Hizkuntzen erabilera, eskolaz kanpoko eremuan.
  - d. Hizkuntzen metodologia.
  - e. Ikastetxeak hizkuntzak bertakotzeko proiektuetan izan duen ibilbidea.
  - f. Ikastetxearen maila sozioekonomikoa eta kulturala.
3. Saiakuntzan parte hartzen duten irakasleak
  - a. Irakaskuntzan duten esperientzia.
  - b. Laneko hizkuntzetan duten gaitasuna.
  - c. Curriculumeko edukien bidez atzerriko hizkuntzak irakastearen eremuan duten prestakuntza.
4. Saiakuntzan parte hartzen duten ikasleak.
  - a. H3 ikasten egin duten ibilbidea.
  - b. Hizkuntzei buruz eta hizkuntzak ikasteari buruz duten iritzia.
  - c. Hizkuntzen erabilera, eskolaz kanpoko testuinguruetan.
5. Familiak
  - a. Familiaren maila sozioekonomikoa eta kulturala.
  - b. Ikasketa-maila
  - c. Etxean duten liburu-kopurua.
  - d. Familiaren etxeko hizkuntza/k.
  - e. Hizkuntzei buruz duten iritzia.

### 3. APLIKAZIO-PROZESUAREN EZAUGARRIAK

HMHren saiakuntza ebaluatzeko aplikazio-prozesua ISEIk beste era batzuetako ebaluazioetan egindako aplikazioen kalitate-parametro eta kontrol teknikoaren parametro guztien arabera egingo da. Edozein aplikaziotan bezala, honako alderdi hauek zehaztu dira: prozesu honetan esku hartuko duten arduradunak eta langileak, bai eta bakoitzaren funtzioak ere; zer euskarriren bidez egingo den aplikazioa; eta zer denbora-antolaketa erabiliko den ikastetxeetan aplikatzeko. Era berean, ezaugarriak eta kontrol-taldeen kopurua identifikatu dira.

#### a) Aplikazioan esku hartzen duten erakundeak eta pertsonak, eta haien funtzioak

Hona hemen aplikazioan parte hartuko duten erakundeak, eta bakoitzaren zereginak eta erantzukizunak:

- **ISEI.** Aplikazio-prozesu osoaren arduradun eta koordinatzaile nagusia da; barneko lantalde bat antolatuko du, proiektua gauza dezan. Besteak beste, honako funtzio hauek izango ditu:
  - Aplikazioaren ezaugarri teknikoak mugatzea eta zehaztea, eta aplikazioa behar bezala garatzeko behar diren dokumentu eta material guztiak egitea.
  - Saiakuntzako ikastetxe guztiei jakinaraztea ebaluazioaren ezaugarriak eta ikastetxeetan aplikatzeko prozesua.
  - Behar den informazio guztia jasotzea HMHren ebaluazioarekin lotutako iturri guztietatik (Administrazioa, ikastetxeak, Berritzeguneak, kanpoko erakundeak, etab.), eta informazio hori antolatzea.
  - Berritzeguneetako erreferentziazko aholkulari guztiei prestakuntza ematea, aplikazioa kalitate-irizpideen arabera gauza dezaten, bai eta, beharrezkoa izanez gero eta horrela erabakiz gero, kanpoko enpresa baten bidez kontratatutako aplikatzaileei ere.
  - Ikastetxean aplikatzeko prozesuaren kalitatea kontrolatzea.
- **Berritzeguneetako erreferentziazko aholkulariek<sup>1</sup>**, saiakuntzako ikastetxeei jarraipena egitearekin eta prestakuntza/informazioa ematearekin lotutako berriazko lanez gain, honako funtzio hauek izango dituzte, ebaluazio-prozesuan parte hartuko dutela erabakitzen denean<sup>2</sup>:
  - Beren erreferentziazko ikastetxearekin harremanetan jartzea, probak behar bezala aplikatzeko behar den informazioa jasotzeko.

<sup>1</sup> Aginduko 5.2 artikulua honako hau adierazten du: «Ikastetxe aukeratuek erreferentziazko aholkularia izango dute dagokien Berritzegunean. Aholkulari horrek eta proiektuaren koordinatzaileak proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egingo dute».

<sup>2</sup> Laguntza-zerbitzuetako langileen lan-plangintzak galarazten duenean, edo proben aplikazio-prozesuaren baldintzek eskatzen dutenean, Hezkuntza Sailak lehiaketa publiko bidez kontratatutako kanpoko enpresak arduratuko dira aplikazioaz.



- Haiei dagozkien saiakuntzako taldean edo taldeetan edo kontrol-taldean edo taldeetan probak eta galdetegiak aplikatzea, ISEIk ezarritako irizpideei eta protokoloari jarraiki.
- Aplikazio-prozesuan zehar dauden gertaeren berri ematea, bai ISEIri bai Hezkuntza Berrizatzeko Zuzendaritzari.
- **Ikastetxeko saiakuntzaren koordinatzaileak**, Deialdi-aginduan adierazten diren berriazko lanez gain<sup>3</sup>, honako funtzio hauek izango ditu ebaluazio-prozesuan:
  - Talde bakoitzean aplikazioa gauzatzeko behar den informazio guztia jasotzea eta bidaltzea (ikasleen zerrenda eta ezaugarriak, ekipamenduaren ezaugarri teknikoak, ikastetxearen ordutegiak eta egutegia, etab.)
  - Erreferentziazko aholkulariarekin batera lan egitea, ikastetxeko saiakuntzako taldeetan edo kontrol-taldeetan aplikatzeko prozesuan, eta aplikazio-prozesuan zehar sor daitezkeen arazo guztiak konpontzea.

## b) Probak eta galdetegiak aplikatzeko euskarria

Proba guztiak, ahal den neurrian, HMH ebaluazio honetarako berriaz sortutako aplikazio informatikoaren bidez egingo dira. Gauzatu ahal izateko, ikastetxe bakoitzean berriazko informazioa jasoko da ekipamendu informatikoari eta hura erabiltzeko aukerei buruz.

Bi modutan gauzatu da probak ordenagailuan betetzeko prozesua:

- On line. Probak kanpoko zerbitzari batean egongo dira eta, probak egiteko, zerbitzari horretara konektatu beharko dute, ikastetxean bertan eskura egongo diren ordenagailuetatik.
- Off line. Probetara sartzeko balio duen eta ordenagailutik kanpo dagoen gailu baten bidez.

## c) Aplikazioaren denbora-antolaketa

Aurrez aipatu ditugun lau une horietako bakoitza ebaluatzeko, bost errendimendu-proba eta galdetegi bat aplikatuko zaizkie saiakuntzako taldeetako eta kontrol-taldeetako ikasle guztiei.

Hasiera batean, aplikazio guztiak goizez egingo dira, bi egunetan Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen kasuan eta hiru egunetan Lehen Hezkuntzako ikastetxeen kasuan. Prozesuan parte hartzen duen ikastetxe bakoitzarekin zehaztu beharko da banaketa hori, gutxienez bi alderdik baldintzatzen baitute:

- Ikastetxearen eskola-ordutegia (zenbat eskola-ordu dauden goizez).
- Aplikazioa gauzatzeko ekipamendu informatikoa.

<sup>3</sup> Aipatutako Aginduaren 4. artikuluan honako hau jartzen du: «Ikastetxeko Zuzendaritzak zaindu beharko du proiektuaren abiaraztea; eta ikasketaburutzak proiektuan jasotako jarduerak koordinatu beharko ditu. Ikasketaburuak gauza dezake funtzio hori edo, bestela ere, irakasleren baten esku utzi. Hala bada, azken horrek proiektuaren garapenaren berri eman beharko dio ikasketaburuari aldian aldiro, eta Zuzendaritza-taldeak egiten dituen bileretara joan daiteke, betiere, proiektuarekin lotura duten gaiak aztertuko badira. Hortaz, irakasle hori edo ikasketaburuak proiektuko koordinatzaile izango dira».

#### d) Nahitaez ebaluatu behar diren taldeak

Lehen deialdi honetan 63 talde ebaluatu dira –Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 40 ikastetxeetakoak- esperimentazio honen lehen urte honetan esku hartu dutenak eta hauekin batera prozesu honetan alderatzeko elementu gisa aukeratutako kontrol-taldeak.

2011-12 ikasturtetik aurrera talde kopuru osoa 306koa izango da, Hezkuntza Marko Hirueledunaren esperimentazio prozesuan parte hartuko duten 118 ikastetxeetakoak (I Eranskina): esperientzian jarraitzen duten 40 ikastetxeak gehi Hezkuntza sailburuordeak egindako deialdiaren (II Eranskina) bitartez sartu diren 46 herri-ikastetxeak eta Hirueletasuna Itunpeko Sare Pribatua bultzatzeko Jokaera Protokoloaren (III Eranskina) markoan aukeratu diren 32 itunpeko ikastetxe pribatuak.

#### e) Kontrol-taldeen ezaugarriak

Honako irizpide hauek hartuko dira kontuan kontrol-taldeak hautatzeko:

- ✓ Ikastetxean talde paralelo bat egotea.
- ✓ Saiakuntzan parte hartzen duten ikastetxeen sare eta hizkuntza-eredu bereko taldeak egotea.
- ✓ Saiakuntzan parte hartzen ez duten ikastetxeak egotea eredu eta sare berarekin, eta antzeko indize sozial, ekonomiko eta kulturalarekin.

Irizpide horiek aplikatuta, hiru egoera sor daitezke:

**A egoera.** Ikastetxean hizkuntza-eredu bereko kontrol-talde bat osatzeko aukera badago, talde hori erabiliko da.

**B egoera.** Eredu bereko kontrol-talderik osatu ezin den ikastetxeetan, saiakuntzan parte hartzen duten ikastetxeen eredu eta sare bereko taldeak erabiliko dira, kontuan hartuta taldeen (saiakuntzako taldeen nahiz kontrol-taldeen) indize sozial, ekonomiko eta kulturalak antzekoa izan behar duela.

**C egoera.** Horrelako talderik ez badago, saiakuntzan parte hartzen ez duten ikastetxeetako taldeak erabiliko dira; ikastetxe horiek sare eta hizkuntza-eredu berekoak izan beharko dute eta antzeko indize sozial, ekonomiko eta kulturala izan beharko dute.

Gasteizen, 2011ko maiatzean.